



Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazSenarEmazte.htm>

SENAR EMAZTE SANTUAK

Agustin Kardaberaz

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

SENAR EMAZTE SANTUAK

Nekazari ezkondu, ta beste guziak,
lurrean zeruko bizitza egiteko Ispillu eder biziak:

S. Isidro Atxurlari, ta bere Emazte
Santa Mariaren Bizitza, Birtuteak, eta Milagroak.

Valmedianoko Markesa Andre,
Doña Maria Mikaela Idiakez, Xabier,
ta Loiola txitez ilustrari,
eta onen Esku Ongilleetatik
gure Nekazariari beren salbaziorako
Jesusen Konpañiako
Aita Agustin Kardaberaz-ek emanak.

1766.en Urtean

BEAR BEZALA
Iruñean: Liburugille Antonio Castillaren etxean



SARRERA

Nere Jaungoiko, zure obra guzietan Santua. Gauza on guzia zurea da, eta doai ondo egin guzia zugandik dator. Zuk Santuen marabillak eskribitzea, agintzen didazu. Zure gloriarako izan dedin, agintzen didazu-na, indazu. Zuk dakizu ondo, eta Zu bakarrik Testigu ona zera, nere buruz, edo naiez egiteko au artzen eztedala. Eskribitzen nagoen leku onetan, zure lekuan guretzak dagoenak, edo aren aotik Zuk au agindu ziñidan. Ala zure naia, edo esana egiteko zure grazia betor. Zure eskua indazu nerea ondo gobernatzeko; eta zure borondatea onetan, da nere gauza guzietan, bear bezala, orañ da beti egiteko. Munduaren asieratik zure obrak asi nai ditut.

LENENGO Şa. SANTUEN BERRI ONAK, ETA ATSEGIN ANDIKOAK

1. Mundu au ezerezetik egin baño len, gure Kriadorea kriaturarik batere gabe, bera bakarrik beregan zegoen, orañ bezeñ glorioso, poderoso, jakinsu, aberats, eder da Santua. Fedeak ala erakusten digu: iñoren, da ezeren bearrik etzuen: ta beti onela da, izandu da, ta izango da beregan. Baña Jaunak berak bere poderioa erakutsi nai zuelako, eta berak ziekien denboran, bere borondate, edo itz bakarraz ezerezetik mundua, ta emen diran gauzak, Dabid Santuak dion bezala, egin zituen. Berak nai, ta esan, eta zeruak eta lurra beren apañdura guztiakin egiñik agertu ziran. Ala dio fedeak, eta sinisten degu.

2. Kriaturarik señalatuena, Aingerua, ta Gizona egin zituen: Aingeruak zeruan, da Gizona lurrean. Aingeruak dira Espiritu uts, nasgabe, garbi ederrak, guziz poderoso, jakinsu, ta doaiez beteak. Gizona da Gorputz ta Anima, graziaz Jaunak bere antzera egiña, Aingeruak ezin kontatu ala dira, eta guztiak batetan egin zituen. *Certa fide credendum est &c* Fede ziertoaz sinistu bear da, munduaren asieran Jainkoak egin zituela Kriatura Espiritualak, edo Aingeruak, eta gorputzezko, edo korporalak, eta mundukoak. Ala erakusten du Konzilio Lateranense, Inozenzio irugarrenaren denboran egin izandu zanak. Au sustraietik zuk ondo jakiteko: eta kriaturen Berri onak aditzeko, jakizu:

3. Aingeruak iru Jerarki, ta bederatzi Koruetan dirala; Aurrenti, edo altuenak, erdikoak, eta bekoak. Bean paratu zituen Aingeruak, Arkanjel, da Prinzipaduak: Erdian Potestadeak, Birtuteak, ta Dominazioak: Goieanean Tronoak, Kerubin, da Serafiñak. Baña beren borondate, edo soberbiaz Aingeruen iru parteetatik bat puntu artan bertan betiko galdu zan. Pekatua egin, ta infernura ziran Aingeruak, andien, edo altuenetatik omen ziran. Orduan S. Migel bitoriosoa, bere Aingeruakin, Jainkoari bere onra guzia eman, da betiko glorian sartu zan. Aingeruen Agintari au gure Gobernari Eleiza Santan Jainkoak señalatu zuen: eta S. Migelek eta beste Aingeruak etsai gaistoen kontra gordetzen gaituzte, eta debozio andia zor diegu. Puntu artan bada Luzifer bere lagunakin infernuetan ondatu zan.

4. Adan gure Aita, ta guzien Gurasoa bere eskuz Jaunak egin, da Paradisu eder atsegiñez betean paratu zuen, nekegabeko bear ariña an



egin, da gorde zezan: Emen Adan lotan zegoela, onen saietsetik Eba gure Ama egin zuen. Ditzazko Paraisu, ark bienzat, eta gurenzat izan bear zuen; baña laster, edo sei orduren barrenen, ditzak galdu, ta desditzak guzientzat irabazi zituzten. Ala ikusten degu. Frutu gozo franko libre jateko eman, da Jainkoak batetik bakarrik ez jatea agindu zien, zeren bestela ilko ziran. Deabruak gure ditzax ezin ikusirik arrabiaz, ta gezarez Ebari esan zion, Jakindezko fruta jaten bazuten, Jainkoa bezala izango ziral. Beste gabe jan zuen, da Adan bere Senarrari janerazo zion. Bereala begiak argitu, ta beren desditzax ikusi zuten. Jainkoak kontu artu, ta Paraisutik bota zituen; eta pekatu orretatik munduko gaitz guziak etori izandu dira.

5. Alere Aingeruak beren pekatuak bertan betiko galdu zituen; baña Gizona ez: bada Jainkoaren Semea bere miserkordia guziaz, gure senide, gu bezala Gizon egin zan; eta mundu galdua bere kosturik andienean irabazi zuen: eta Aingeruak zeruan utzi zituzten sillak betetzeko, Gizonak beretu, ta Santugille bakarra bezala, oriek Santu egitera etorri zan. Estadu guzietan bere Justizia santifikatzeko, ta bere kausa justifikatzeko beti Santuak egin ditu: iñork ere, ta iñoiz ere aitzakiarik eztu; bada denbora, ta leku guzietan, Jaunaren antzera, Santu, edo justuak izandu dira, ta izango dira. Jainkoaren eskua laburtu ezta.

6. Dotrina au fedekoa bezala da. Orañ Predestinatuen, edo zerurako eskojituen Dotrina, Eleizak, eta Dotoreak ematen duten gisa esan bear degu. Jesu Kristok dio, zeruan egoteko silla, jarleku edo mansio asko dirala: eta S. Pablok dio, Jaunaren doai, edo graziak era askotan partitzen dirala. Eleiza Santan, justuen bideak banaka dira. Zerura guziak eztihoaz bategatik, ezpada bakoitza bere bideetik. Lurretik zerurano, edo goitik berañoko miskeriozko Eskala bat Jakob Santuak ikusi zuen, era Aingerua gora, ta bera zebiltzala: guretzat, edo gugana jatxi, ta gu gora eramateko. Eskala onek malla asko ditu: orietan batzuek dihoaz gorago, besteak berago; baña guztiak, eta bakoitza bere bidean zerura.

7. Estadu, edo bide guzietan Santu justuak beti izan dira, ta beti izango dira: eta guztietan gure Jainkoa miragarria izan da, ta izango da. Munduko Erreino, Probinzia, Erri, ta familietan justu santuak izan dira. Kristau jendeetan familia, edo etxe añ desditzadurik ezta, zeñak bereetatik batzuek, edo asko zeruan eztituen. Gure Nakazari pobre garbi, ta baserri jende onetatik asko, ta txit asko, edo geienak, nereko zeruetan daude, eta aurrera ere salbatu, ta zeruko glorian sartuko dira.

8. Altxa ditzagun bada zerura begiak: jaso ditzagun biotzak an gora: arako egiñak gera, orañ lurrean arrastaka bagabiltza ere. Begira ara, ta an gure asabak, gurasoak, senideak, aideak, kideak, adiskideak, ta ezagutuko

ditugu! O zer gloriatzko ditzax! Zenbat aurtxo gozo txiki! Zenbat Gizon prestu, ta Andre garbi justuak an gure begira daude! Guri deiez daude: guri ara igotzen laguntzeko prest daude. Jauna beti alabatzen daude! O zer Bitarteko, ta Lagunak! O zer Jesusen Konpañia triumfantea! Ama Birjiña, Aingeru, ta Santuakin betiko gloria bizian ala egotea! Gu orañ geran, edo gauden gisa, aiek ere denbora batean zeuden, edo emen bizi ziran. Etorriko da denbora, ta laster, zeñean Jainkoaren piedadeaz salbatzen bagera, gu tristeok ere, aiek bezala izango, ta glorian betiko Jauna alabatzen egongo geran.

9. Orañ ditzax andiz zeruko justu Santuen memoria guk egiten degu, gure ondorengoak gero gurea orrela egingo dute. Orañ Santu guziak gure odoleko, ezagun, da lagunak Jainkoagan alabatzen ditugu: gero besteak gu orobat alabatuko gaituzte. Ea bada, anima gaitean, aiek lenago emen egin zutena, guk orañ egitera: gero aiek orañ duten frutua, sari, edo koroa guk ere aiekin batean gozatzeko. Jainkoak asko eskatzen eztiugu. Berak Santuak kasi guztia eman edo egin zien: guri ere eman, edo egingo digu. Guztiz aberatsa, ta guztiz emallea da: ta, guztia emanda ere, beti aberats gelditzen da. Gure borondate, edo naia laburtzen ezpada, arena ezin laburtuko da. Au ikusia dago.



BIGARREN §a.

SANTU EDO PREDESTINATUEN ERALDA EDERRA, EDO ORDENA EDERKI NABARTUA

1. Zeruan daudenak Auretsi edo Predestinatuak izateko, besterik egin etzuten, ezpada beren borondate ona Jainkoari osoro ematea. Zerutar guztien bidea, atea, ta zeruko atearen giltza maisua au izandu zan. Orrezaz ondo baliatzeko, Jaunaren Jakinde edo Probidenziak, justu guzien, da bakoitzaren bideko pausoak zuzendu zituen, ta bearren zituzten graziak txit ugari eman ziezten. Ezta lurreen estadurik alturik edo bajurik, zeñean justuak izan ez tiran, eta zure biziera, edo ofizioakoak ere asko. Bere ofizioa, dana dala, Jaunaren grazian, da aren amorez beterik, biotz garbi santuarekin egiten duena, Jainkoaren aurrean ori da santu andia.

2. Munduaren asieratik asi gaitean Gizon, edo Andrea, ara: Zu santu izateko, Jainkoak Birjiña garbien Kastidade osoa eskatzen ez tizu: ezkontzea zillegi da, ta nai badezu libertadea dezu. Adan, da Eba ezkonduak ziran, da Santuak dira: orobat Zakarias, ta Isabel; Joakin da Ana. Ermura joan bearrik eztezu, ta eremuetan Anakoretan gisa bizitzerik: anziñako Josef Santua, Samuel, da Errege Dabid beren Etxeetan ill ziran, da Santuak dira. Santu izateko Maisu, edo Dotore andi izatea, edo Libruen gañean burua autsi, edo betuleak erre bearrik eztezu: asko da Fedeko Misterioak, eta Mandamentuak ondo gordetzeko jakitea; S. Pablo sinpleak, S. Juniperok, ta Hermanok bezala: orregatik ere Santuak dira.

3. Predestinatu guztien Burua Jesu Kristo da, ta Santuen Kontu ditxosoa, ta Lista ederra Jaunagandik asi bear da. Munduko Ejerzizio, edo Ofiziorik altuena Kristoren Bikario izatea da, edo Erromako Aita Santua: eta Zeruko Dignidade, Puesto, edo Silla onetan S. Pedoren ondoren Santu txit asko izan dira? Kardenal, Obispo, ta Sazerdote Santuak nork kontu ditzake? Erraz ezta. Gero lurreen Puesto, ta Lekurik andiena dutenak, Enperadoreak, Erregeak, Prinzipe, ta agintariak dira: oien artean S. Enrike, ta bere Koñado S. Esteban: gure S. Fernando, S. Ermenejildo, San Luis, ta beste txit asko Santuak dira. Palazioetako Ofizio guztietan irakurten nago Santuak. Kanpoetan, gerretan da pakean, armetan, da justizian,

orañ ikusten nago zenbat Kapitan, da Soldadu andi: zenbat Agintari, Konsejero, ta Gobernari. Jauregietakoak utzi nai ditut, ta besteetara noa.

4. Soldaduen artean S. Eustakio, S. Sebastian, da S. Marzelo gurea bere amabi semeakin, Soldadu balienteak Santuak ziran: oiek, eta beste asko onra ta puesto altuetatik zerura igo ziran. Baña goietatik beetara jatxi gaitean. Zer ofizio altuagorik oriek baño; ta zer bajuagorik urrengoak baño. Kale loiak, ta zikiñak garbitzea: ero andi, desonragarri, edo komediante izatea: aralle, edo borrero billau izatea baño? Bada Ezerzizio orietan ere, S. Erineo kalegarbitzalea; S. Ziriako, ta S. Estratomio, borreroak; ta S. Porfirio, ta S. Jines komedianteak Santuak izan ziran.

5. Anima kondenatzeko non peligro geiago, Tribunaletan baño? Alere Juezen, Letraduen, Eskribaben, Prokuradoreena, da besteen ofizio arriskatuan, Jainkoak Santuak egin ditu: S. Ereberto, ta Sto. Tomas Kanzillerak, S. Jeroteo, ta S. Dionisio Senadoreak: S. Pudente, ta S. Apolonio Konsejariak: S. Anastatio, ta S. Ferreolo, gaitzkilleen Juezak: S. Zipriano, ta S. Anbrosio Letraduak; S. Serjio, ta S. Jines Eskribabak; S. Fuljenzio azienden Prokuradorea; S. Aproniano, ta S. Basilides Alguazilak, edo Kortxeteak. Mediki, ta Osagilleen artean, S. Kosme, ta S. Damian, da beste asko: Sto. Tome Dantxi Botikarioa.

6. S. Pablok dio, pekatu guzien sustraia kodizia dala: ta salerosi, tratu, ta merkatarien irabazi nai ori, ta orren sustraiak biotzetan añ sartuak, edo josiak badaude ere, Merkatarien artean Santu andiak dira S. Fuljenzio, ta S. Gido bat, eta S. Pirumenzio biak; eta beste asko. Eta peligrizko ofizio orietan, da Santugaien talleretik edo bidetik añ urruti zebiltzanak Santu añ andiak irten baziran: Nekazari garbien ejerzizio, ta ofizioetan zer izango da? Nekea, ta bearra birtuteen lagun, ta adiskide oi dira: eta malizia, edo gaitz guztien ekarle alperkeria beregandik aienatzen dute.

7. Ea, bada, Nekazari prestuak: laster egizute: zuena da zerua. Animo: Santuak izan bear dezute. Jainkoak ala nai du, ta berak grazia emango du. Begira, nola zuen nekezko biziera pobrean bezala, Santorik preziosoena izandu ziran. Zorioneko Beargille orien artean, Familia sagraduari, edo JESUS, MARIA, ta JOSERI begira ondo. Santu guztien artean ditxosoena, San JOSEF glorioso Nekazaria izandu zan: Jainkoaren Semeari, ta Amari bere eskuaz lana egin bizitzeko janaria, ta bear zutena irabazi zuen! O ditxazko nekea! O zer bearraren saria, ta gloria bizia duen orañ!

8. Ama Birjiña jostun eder beargillea izan zan, da bere esku preziosoekin Tunikatxo inkonsutil, edo puskagabea bere Semetxoari egin, ta ill arterañoiko janzi zion. JESUS dibino guzien Santugillea, ta bere eskuz



mundua fabrikatu zuen Maisua, Nekazariak lotsatu etzan: Gurutze Santuarekin antzik, edo sinpatiarik geiena zuen ejerzizioan Aita S. Joseri laguntzen, berak, beste ez bezala, bearra egiten zuen. Apostolo Santuak Nekazariak, eta Arranzaleak ziran: S. Pedro, munduko Erreino guztien, ta Zeruko Gilzari, Jabe, ta Jauna, ala zan. S. Pablo bere eskuetako bearraz bizi zalako gloriatzen da. Goazen orañ zuen bakoizaren ofizio jakiñetako Santuetara.

9. S. Jakobo Zurgin, edo Arotza zan: S. Prokulo Argiña: S. Sinforiano Eskultorea: S. Pablo Elatiko Tornularia: S. Floro Zerratzallea: S. Eljio Urregillea: S. Androniko Zillargillea. S. Dunstano Errementaria: S. Homobono Dendaria: S. Krispin Zapataria. S. Onufrio Eulea: S. Goal-fundo Okiña: S. Joan de Dios Librugillea. S. Maurizio Ortelanoa: S. Paulino Jardineroa. S. Leonardo Artzaia: S. Aldenio Unaia: S. Arnoldo Mariñela: S. Putenio Arranzalea: S. Rikardo Gurdigillea: S. Adriano Korreoa: S. Gillelmo Errotaria: S. Alejandro Ikazkiña: S. Jeminiano Tabernaria: S. Kiriko Kozinaria: San Enrike Epallea. Orien da beste orrelako ofizioetakoen artean, asko Erromako [...] berez, azi, ta Santu Beargilleak egin ziran.

10. Orra konsueloa franko. Andreen artean Santa jastun, da gorulariak, ta beste Beargille asko orobat izandu ziran: eta orra zuk argiro ikusi, len esan deguna: Zeruko Eskala malletan, Santuak, bakoitza bere ofizioan, nola zerura igotzen diran Lurreko neke, ta beargai guzietan, añ baju, edo loirik ezta, zeña fede onaz, ta biotz garbiaz egiten bada Santuak ematen eztituen. Orañ ere Santugai, edo justu santu asko dira mundu gaisto onetan: eta bizimodu guzietan, Jainkoak bere Adiskide maite asko, bera serbitzeko dauzka lurrean, gero beti bera alabatzeko zeruan. Zu, ta ni gloria artarako orañ ondo bizi gaitean. Amen.

IRUGARREN Şa. S. ISIDRO ATXURLARIAREN BIZITZA, TA BIRTUTEAK

1. Jaunaren milla ta sei eun, da ogei ta bigarren Urtean, Marzoaren amabigarren egunean, Erromak Erroma dan ezkeru, ta munduak Eleiza Santan ikusi duen gloriarik andienetarik bat ikusi zuen. Gure Españak paregabeko, ta onra txit andiko gauza asko ikusi ditu; baña gutxi, bearrada, gloria, ta atsegin andiagokorik egun ori baño. Gregorio Amabosgarrena, Erromako Aita Santu urte bi, ta bost illabetean izan zan; baña Aita Santu gutxik, onek bezalako ditzarik egun batean ikusi zuen. Zer konsuelo, ta alegria gozoagorik arenzat, eta guretzat, bost Santu guztik miragarriak, ta orietatik lau Españolak, solemnidade, ta gloriarik andienean, ta egun batean kanonizatzea baño? Zer zeruko debozio, ta atsegiñarekin bost Santuen onran egin zan Orazio berri ederra, lenengo Jainkoaren alabantzian Aita Santuak kantatuko zuen?

2. Marabillazko Santu oiek ziran San Isidro Atxurlaria, Aita S. Ignazio, San Franzisko Xabier, Ama Sta. Teresa, ta S. Felipe Neri: au Oratorioko Fundadore glorioso: Jesusen Biotzeko Esposa maite Birjiñen artean, Karmengo Lore eder, Andre guzien joiarik preziatuena, Sta. Teresa, bere Relijioaren Fundadora: A. S. Ignazio gure Jesusen Konpañiako Fundadora: Mundu berriko, edo Indietako Apostolo Xabier milagrosoa: ta S. Isidro Atxurlaria, Madrid koroatuaren Gloriarik andiena. Jainkoaren Jakinde altu ta ezkutatuena onetan ondo agertzen da; bada Erregerik andienaren, edo Mundu bietako Jaberik aberatsenaren Kortean, Isidro Atxurlari pobre umilla, Erregeen Patroi poderoso, ta Anparo segurua Jainkoak paratu du, oriek beren Koroa, ta Majestade guztia Isidoren oñetan deboziorik umillenarekin Jainkoari emateko, ta Santu prezioso onen bitartez, eskatzen duten guzia, oi dan bezala, alkanzatzeko. Mirarizko Santu onen Bizitza asi dezagun.

3. Aita Daniel Papebroquio gureak Anberesko bere Lagun guziz jakinsuakin, estudio, ta neke gogorrakin Eleiza Santaren egitekorik andiena, edo Santu guzien Bizitzak egiaz, edo al dan argiroena ematen dituzte. Jainkoaren gloriako, ta Santuen onra andieneko obra da au. Aita Daniel onek, S. Isidro Konfessore guztiz gloriosoaren, Bizitza atena zuen: eta onek dakar, edo ematen dit; nik gure Euskeran ori emateko bear dan argi



guztia. Kanonizazioko Prozesuetatik Joan Diakonok, A. Jaime Bleda, Reljioso Dominiko, piedade, ta kontu andiko Autoteeratik, gure Padreak artu zuten, da nik orietatik.

4. Konsueloa da, Santuen Gurasoak, jaiotza, non, da noiz, orien aziera, ta beste orrelakoak ondo jakitea. Baña gure alabearrez gauza orien arrastorik ere garbiro ezin atera degu. Seieun urtera dijoa, Joan Diakonok San Isidoren Bizitza atera zuela, baña noiz zierto eztakigu. A. Papebroquiok kontu segurua ateratzen du, Santua askoz lenago ill zala. Madriden jaio, ta bizi izan zan Santua, gauza jakiña da. Zorioneko onen Gurasoak norzuek ziran eztakigu. Ifondik ere, Jainkozko Aita, ta Ama zituen; bada Arbola onak bezala, alako Isidoren frutu eskojitu preziosoa zerurako eman, da piedade guzian azi zuten.

5. San Andresko Parrokian bateatu zan, da lenengo graziarekin Isidoren Izena Bateoan eman zioten. Doai beardiña, edo doaietan berdiña Isidrok esan nai du, eta aurrari ederki zetorkion: bada grazia, doai, ta birtuteetan, Jaunak berak, ta bere gustora txit berdin, edo igoala egin zuen. Santuaren mirarizko Bizitza luzetik erraz, ta klaru ikusten da, nola, ta zeñ kontu andiaz onen Guraso piadosoak beren Seme, edo doaiezko Isidro zerurako Santugaiari bezala, begiratu zioten, Jainkoaren bildurrezko Gurasoak umeen ditzarik andiena dira: geienean Aita, ta Ama nolakoak, Seme ta Alabak alakoak. Kristau aziera ona, ondasunik, aziendarik edo doterik onena da. S. Isidrok, Guraso pobreen Semea bazan ere, egia au ondo erakutsi zuen.

6. Santu gai andia txikitatik Isidro izan zan, ta orren señaile ederrak bereala eman zituen: inklinazio txit onetakoa, txit egokia, txit umilla zan: guztienzat maitagarria, ta ala guztiak maite zutena, Juan Diakonoak dion bezala. Jainkoak beretzat autensia, edo eskojitua zeukan, ta bera bakarrik obeto serbitzeko, ta amatzeko, aren borondatea guzian egitea beti billatzen zuen. Infernutik bezala, lagun gaistoetatik iges oi zebillen: onekin ez artu, ta ez emanik: joko, trabesura, ta bulletan baño, bere bakarrean Jainkoarekin obeto arkitzen zan: eta nola birtute guztietarako jaioa bezala zeruak Isidro prestatu zuen: onek bere biotz garbi, manso, paketsua, Jaunaren argi, ta deiak amore onez artzeko, beti prest zeukan.

7. Bere anima santa peligro guzietatik libratzeko, sagradu segurura bereala biurtu zan, ta Eleizarako bidea ikasi zuen. Gaztetarik bere inklinazio, ta debozio guzia Eleizan, bere zeru, edo tokian bezala, Jainkoa arkitzeko billatzen zuen, Eleizan beti, edo al zuen guzian bere Jaun, da Jabe bakarra biotz guztitik adoratzen zuen, eta orretan gau, ta egun, edo beti egon nai zuekan: eta nola Isidro Jainkoari añ osoro emana zegoen: onek

Orazioan, Dotrina, ta Sermoietan bere itz dibinoa enzuteko, gogo, debozio, ta naiera gozo, ta egunoro biziagoa ematen zion. Gure Fede, Reljio-ko Misterio altu, ta Eskritura sagraduko argi andiak Eleizan, artu eta justizia, edo santidadearen egiazko gose, egarri andiagoa artzen zuen: eta Libruetan baño ere Dotrina altuago, ta errazago bear zuen guzia ikasten zuen. Espiritu Santuak Eleizan Isidoren espirirua bere lezio, ta doai guziaz betetzen zuen, bera ezagutu, ta amatzeko.



LAUGARREN 3a. S. ISIDROREN POBREZA, TA UMILDADEA

1. Guraso pobreen umea bezala, Santua pobrea zan; baña txit ondo azia, ta ondasun guztien Jabe emalleak beretzat señalatua. Gizon gazte zala, ta ezertakoa, bere zeruko argien artean ikusi, ta ezagutu zuen, bere neke, ta bearrarekin bizia atera bear zuela. Orretarako saiatu bear zuen: eta, Adan guzien Gurasoak, Jainkoaren aotik aditu zuen sententzia: ZURE ARPEGIKO IZERDIAZ OGIA JANGO DEZU; Isidro beretzat artu zuen; eta ofizio, edo beargai guztien, ta konzienziako peligroen artean seguruago jokatzeko, nekezkoena, baña garbiena beretzat eskojitu zuen, eta Jaunaren graziarekin Atxurlari nai izan zuen.

2. Au da munduak bere asieratik aurreneko ikasi, ta ikusi zuen ofizioa. Adan Santua Atxurlari Jainkoak egin zuen. Atxurlarien anziñatasun, da dignidadea, Gizonakin batean munduan izan zan. Noblezia guztiaren sustrai, asiera, ta burua gure Aita Adan izandu da. Aren Seme Santuak, Abel, Set, Noe, Sen, Abraan, Isak, Jakob, ta beste Gizon prestu Santuenak, eta Israelgo jende eskojitu guziak, Erregea Jainkoari elkatu arteraño, Atxurlariak izandu ziran. Erromaren Fundadore Romulo, ta Remo Atxurlariak; Fabioak, Lentuloak, Diokleziano, ta Magsimiano Enperadoreak, ta anziñako beste Errege, ta Agintari asko Atxurlariak: Erromako Aita Santu Silbestre, Silberio, Adriano, ta beste asko Atxurlarien Semeak izandu ziran.

3. Orra zeñ onra andiko gauza dan Atxurlari izatea. Onra pobre, baña lenengo, ta garbien au Isidro bere bizimodurako artu zuen. Bearrak, eta pobre izatea justu izateko asko laguntzen du: bada deabruen lazo askotatik, ta munduko peligro ero, ta banidade itsu askotatik anima libratzen du: eta birtute guzien egiazko Maisu dibinoaren antzera, batez ere umildadean berari jarraitzeko, asko balio du. S. Isidrogan au gertatu, txit klaru ikusi zan: txitez umilla zan, eta umildade onek fedez aren biotzean guziz barrera ondeatu zuen, da sustrai guziz sendoak ezarri zituen: emendik birtute guztiakin Santidaderik altuenera, ta zeruko gloriara añ seguru, ta ederki igo zan.

4. Bere biotz umillean, Jainkoaren doai, edo argi klaruaz espirituko pobreza, joia guziz preziosoa zala ezagutu, ta obeto estimatu zuen. Baze-

kuzan, Jesus Errege ondasun guztien Jabeak Pobreza espiritual au jao zanetik betiko bere lagun maitea izandu zuela: eta S. Pablok erakusten diguna: «Zer jan, da zer janzi degula, kontentu izan gaiteala»: eta S. Agultinek diona: «Gutxiren bear izatea obe da, askoren jabe izatea baño». Bero izerdiakin Jainkoak ematen zionarekin Isidro beti kontentu zan. Jaunak obeto daki: eta ark ematen dizunaz zu kontentu ezpazera, zuk nai den dezu-na iduki ta ere, beñere kontentu izango etzera. Pobreak aberats, ta aberatsak aberatsago izan nai oi du: ta geienean pobreen, aberatsen, da zure gaitz guzia, S. Pablok dionez, eragabeko deseo orietan dago: zure anima oiek beti tormentuan daukate. S. Isidro pobrearen ejemplo, ta ispillu bizian begira zaitez ondo, ta argiro ikusi ezazu bere bearrean ondo luzaro bizitzeko, zer faltatu zitzaion sekulan lurrean? Zure gisako deseoen tormen-turik aren biotzak ez oi zuen: ari jarrai zaiozu, eta Jainkoak nai duen artean, kontentu, ta obeto aren gisa biziko zera zu.

5. Santua gauza gutxitan munduaren bear izan zan, ta orregatik munduko aberats, ta andi naiak baño ditzosoago zan. Jan edanean txit begiratu, ta urrijalea zan: eta pobreza umill, ta mirarizko, abstinenzia onekin, lurreko griña gaistoen artetik, aren biotza laster ariñ zerura igo zan. Guzioi erakursi zigun, animako arazo, edo deseo oriek kendu ezkeru, zeruko libertade osoan, birtute guzietan txit erraz aurreratzen dala. Eleizako Maisuak Eskritura Sagradutik erakusten dutena au da: ta zeruko argi, ta lezioakin Isidro ori txit ederki ikasi, ta gorde zuen; eta zu, Atxurlari, edo Nekazaria, zure obretan ori egitea, Santuak nai den du: aren pobreza umill onetan, da konfianza osoan, Jainkoak egin zituen marabilla andiak, zure konsuelorako gero esango ditugu.



BOSTGARREN §a.

S. ISIDROREN, DA SANTA MARIAREN EZKONTZA

Esan degun aziera santuan San Isidro aurreratu, ta Atxurlari egin zan. Bere bearrean saiatzean, Madridko Errian, Iban, edo Joan de Vargas zeritzan Jaun baten Baserri, edo kinta bat bere soro, ta lurrakin, bere kontura, urtean onenbestean artu zuen: eta ordutik Isidroren fabore zeruko mirari andiak ikusi ziran. Isidro gizon gazte, beargille egoki ta kontentuzkoa zan; baña bakarra, ta bere bakarrean neke andia zuen: da Jainkoak Adan gure Aitari Eba bezala, Isidrori lagun, edo Emazte santa bear zan bezalako, bere eskutik eman zion. Au Santa Maria izandu zan, zeñaren Bizitza laburtxo bat gero emango degun. Bearra Isidrok obeto egin zezan, Etxeko beargaietan Santa zegoela, diotenez, Nagusiak zeruko Ezkontza au nai, ta egin zuen.

2. Santa Maria serbitzen zegoen, ta bearbada Nagusi orren Etxean: eta nola prenda txit eskojituak, bere edertasun famatuan, da are geiago bere santidadean zituen, Isidro estimatzen zuten lagunak, Santa arenat nai zuten. Jainkoaren borondarea ala zalako, biak Santuak bezala ezkontzeko, konfesatu, ta komulgatu ziran: eta fede, ta debozio guziaz Matrimonioko sakramentua, Eleizak agintzen duen bezala, artu zuten. Madriden desposatu, edo ezkondu zirana, gauza ziertoa da. Eztaiak garbiro egin, ta Isidro, ta Sta Maria Nagusiaren Baserri, edo Caramanchela joan ziran. Beren tresnak eraman, da beren pobrezan Etxea garbiro maneatu zuten: onen kontua Santak, eta aziendari kobru ematea S. Isidrok artu zuten.

3. Pobreak baziran ere, aberats asko baño kontentuzko, ta obeki ta txit armonia ederrean bizi ziran: zutenetik aberats askok baño pobrei limosna geiago egiten zien. Nola Ama Birjiñaren debozio añ andia beren biotzetan zuten, konziertoa biak egin zuten, asteoro egun bat, zapatu, edo Larunbata artu zuten, Ama Santisimaren izenean pobrei beren eltze edo lapikoa egiteko. Biak santuak ziran, da zerutarren gisa, pakezko biziera, edo zerukoa lurrean egiten zuten. Jainkoak nai duen bezala batak bestea estimatzen, ta amatzen zuten. Orretako denboraren buruan bendiziozko frutu, edo Seme bat Jaunak eman zien, eta Joan, Nagusiaren errespetoz semeari Joan izena eman zioten: kontu, ta amoriozko debozio andiaz

beren ori azi zuten: eta onekin gertatu zan Guraso santuak egin zuten milagro andi au.

4. Mutiltxo inozentea, alabearrez, ta ustegabe pozuan erori, ta ito zan. Amak ura ikusi zuenean, bere entraña piadoso, ta biotzeko penaz beterik negarrari eman zion. Isidro orduan kanpotik zetorren: semea ito zalako arren negarrak aditu, ta nola añ amoroso zan, txit agitz lastimatu zan, da esan zion: Ea fede osoaz belanikatu, ta Jaunari eska diozagun, gure semea bizirik digula. Santuak orazioan zeudela, orra non, putzko ura mirari andiaz, ta gorazio aziaz igotzen ikusi zuten: ur gañean seme ori bizirik artu, ta milagro, edo fabore andi onegatik biak Jainkoari milla biotzeko esker eman ziozkaten.

5. Onetan, da esango diran Milagroetan Isidroren fede bizi, ta Jainkoagan zeukan guztizko konfianza ondo ikusten da: beraren Adiskide maiteak bezala, eskatzen zuen guzia, alkanzatzen zuen: Espiritu Santuak gobernaturik, ondo ziekien nori, ta nola eskatu: Isidroren anima garbiak gau ta egun Jaunaren Lege santua gogotik gorde nai zuen: bere estadu pobrean egunoro obeto bizitzeko, bearren zituen argi ta graziak eskatzen ziozkan, eta Jaunaren ontasunak beti laguntzen zion. Bere etxeko lanak eta kanpoetako bearrak Sta. Mariarekin batean ederki errepartitu, eta biak zeruko Aingeruen bizitza lurrean egiten zuten. Orañ obeto ori ikusiko dezu.



SEIGARREN §a. SAN ISIDROREN PIEDEDE TA DEBOZIOA

1. Piedadea dio San Ambrosioak, Birtute guzien zimendu, edo asiera dala: eta Debozioa, Santuak berak dio, Birtuteen Ama dala. Ama onen bular gozoan Isidro azi zan guziz piadoso, ta debotoa. Onetarako jaioa bezala txikitatik seinalatu zan; eta gizon egin, da bere piedadean bentaja andiak beti aurreratu zan. Onen biotzeko piedade zabala, ala bere Kriadorearekiko, nola Kriatura guztiakiko, gizon, da txoriakiko ere bazan. Jainkoa serbitzeko, ta guztiai al zuen ona egiteko Santua mundura etorri zan. Nekazarien artean nor Isidro bezeñ piadosorik? Nor Isidro bezeñ debotorik? Jainkoarekiko piedadean aren biotza, zeruko inzensu gozo batean gisa beti urtutzen zegoen.

2. Bere Ejerzizioetako orduak gaztetatik txit egokiro artu, ta kunplitu zituen. Lenengo egunoro txit goiz jaiki, ta uda, ta negu, aren lendabiziko arreta, ta pausoak zirtan, bide luzea bazan ere, Madridko Eleizak ibiltzea, ta Meza Santuak zeruko fede bizi, ta deboziorik andienaz enzutea. Bere Tenploan bezala, Jauna adoratzan zuen: bere biotza osoro emanda, bere suabidade, ta amorez Isidro guztia desegiten zan. Jesu-Kristoren Pasioko Misterio, ta amorezko, ta dolozko Pauso guziak nola Meza Santuan biziro berritortzen diran, ondogabeko itxaso onetan Isidroren anima sartzen zan, eta amoriozko iturri bat eginik, bere Jaunaren negarrezko doaiarekin zana urtutzen zan: eta au zan aren deboziorik andiena, eta gero Ama Birjiñaren amorioa.

3. Nekazari prestua, emen aterezazu kontua, zer neke, edo penitentzia gogorra zan Isidro goizoro, uda, ta negu, otz, ta bero, ta ekatx andiak, orrela Eleizetara joatea, ta an luzaro Jaunaren Misterioetan egon, da gero bearrera joatea. Baña Isidro ditzosoaren espirituko balentia orrenbat baño balienteagoa zan: era Jainkoaren, da bere Ama Santisimaren amorioa dibinoak ariñ ibiltzeko egoak, ta Eleizan etxizaturik luzaro egoteko indarrak ematen ziozkan. Ala zuri ere emango dizkitzu Jainkoak. Atochako Ama Birjiñaren, orduan ere bai, ta orañ are geiago debozio andiko Santuarioa aren lenengo orazio luzea zan: andik Eleiza asko, ta Almudenako, orañ Madridko Ama Birjiñaren Eleiza Nagusia, ta azkenik S. Andresko bere Parrokia artuak zituen.

4. Guzietan luzaro, ta zeruko Santu bat bezala Mezak enzuten, da orazioa egiten beregan sartu, ta sosegu debozioan egon oi zan. Ama Birjiñaren amorez, Jesusen penetan bezala Isidroren biotza negarrez urtutzen zan. Autoreak diotenez egunaren geiena, edo guzia, bearrean ere, onetan gastatzen zuen; baña Eleizan txit luzaro, ta sosegu suabean denbora igarotzen zitzaion. Ori askok ikusia, ta jakiña zan. Arroaturik, kordegabe askotan bere Jabearen biotz maitean sarturik arkitzen zan: eta ori milagro ezta, Santuak zituen zeruko erregaloakin.

5. Debozio guztien Eguzkia Mezako Sakrifizio dibino da. Eleiza Santaren Ejerzizioen artean, izarren arrear Eguzkia bezala, da Meza. Onak beste izar, edo debozioai, oiek duten argitasun ederra ematen die. Esan al baño geiago, diote Autoreak, Isidro Mezako Sakrifizioan Jaunak seinalatu zuen. Diote, zeruko argi ta debozioak beregandik atera oi zuela: eta Aldareko Sazerdote bakoitzaren biotz, edo espirituari Isidro zan guzia sartzen zala? Onak Meza santuan izan zituen fabore dibinoak nork esan ditzake? Geienak Santuaren biotz humillak ondo gorde zituen! A Nekazari pobrea! Zuk ala zure Jainkoa goizetik billatzen bazendu; ta ark bezala fede bizi, ta intenzio garbia, lurreko gauzetatik librea bazendu, seguru nago, Mezatan zure spirituak, arenak bezala, zeruko erregalo andiak artuko litukeala!

6. Ama Birjiñaren, Aingeru, ta Santuen beste errezo, ta debozioetan Isidro berbera beti, edo beti bat zan. Guzia zeritzan gutxi; eta orregatik luzaro oi zegoen, ta geiago egon nai zukean. Zeruko egarri bizi zan. Ark alako zerutarren eztizko konsueloak artzen zituen: oriek Mezatan geiago ziran. An Aingeruak alde guztitik Aldarean daude, eta Isidrok ikusten zituen. Begizko orren testigu ona da S. Krisostomo: onak Estola, edo soñeko guztiz eder argiak ikusten zituen: eta zuri, Meza enzuten zaudeneko egia au Santuak esaten dizu, debozio andiarekin egon zaitean. Ori bera Sto. Tomas Aingeruak ikusten zuen, gure S. Isidro erregalatuak bezala.

7. Nola Isidro bere anima garbian Aingeruen lagun, da adiskide aña maitea zan, oriek Mezatan ala ikusi, ta arien erreberentzia, ta debozioa ikasi, ta artu zuen: eta bere lurra apañtzen Aingeruak, ikusi ziran bezala, laguntzen bazioten? Meza dibinoan zenbat, eta nola berak ikusiko zituen? Beñ batean bere beargaian berandutu, ta Mezarik enzun gabeko pena andiaz geratu zan; baña orregatik ere S. Andresen bere Parrokia joan zan. Eleizako atek itxiak zeuden, ta atondoan belaunikatu, ta txit debozio andian jarrita zegoen. Orduan zeruak erdiz erdi zabaldu, ta Isidrok ikusi zuen, nola Aingeruen Jaunak Majestade guziarekin Meza txit solem-



ne bat zeruko glorian, Santuak enzuteko [...]oratu zuen. Amorez urturik beregan [...]tu zan! O zer aren animako konsuelo dibinoa!

8. Eleizetan Aingeruakin batean arrobatutik egoten zan; ta onen Lagun egin, da Mezatan, Jauna adoratzan, da amatzen zuen. Adiskide batek Eleiza atarian belauniko ta txit debozio andian Santua ikusi, ta galdetu zion: Isidro, zer egiten dezu or? Onek bere biotz sinzero, edo garbiarekin eranzun zion: Zeruko Meza enzuten nago. Jainkoaren gauzetarako, eta batez ere Meza santurako, bere buru argitua, Jaunak argiago egiten zion: ta esan diran Aingeruen ejemplo, ta lezioakin, guzia animako fede, ta amorio umilla ikasi ta beti biotzean josirik zeukan. Jainkoaren rebelazio, edo argi andi batek onetan asko lagundu zion. Beñ Meza enzuten zegoe-la, Jaunak erakutsi, ta ikasi zuen, zenbat aren ofensa Eleizetan, da Meza denboran egiten ziran: eta demonio bat ikusi zuen, Libru, edo permagio bati tiraka biziari zala, an gaizki zeudenen pekatuak eskribitzeko; fede ta debozio gabe zeudenai burla, ta iseka egiten ziela. Argi triste onetan Isidro debotoak txit asko ikasi, ta damu, ta pena andia artu zuen Jaunaren ofensara animen kalteaz.

9. Eta Kristau fedegabea, Eleizan da Mezatan debozio gabe, modu gaistoan egoten zerana, lezio, ta kalte onetan ikusi ezazu, aurrera nola Aingeruen artean zaudena bezala, belauniko, ta geldi, soseguz, ta debozio ixil batean Mezatan egon bear dezun. Dotore askok diote, Konzilio Santu bitan agindu zala, Mezatan Orazio bokalik ez egitea baizen mentala, edo biotzekoa. Andre askorentzat lezio ondo bearra, isilik egoteko, ta aldean daudenak ez dibertitzeko. S. Isidro ala egon oi zan Meza dibinoa enzuten, ta beste bere debozioetan. Egun andi, edo señalatueta konfesatu, ta komulgatzen zan? Baña nola prestaturik? Bere anima añ garbia idurik, zer aren orduko erretiroa! Zer damu, ta biotzeko negarrak! Zer biziera berri santu baten proposituak! Zer bere Jainkoa maitea biotzean ondo artzeko prestaldia! Komulgatu, ta zer aren esker andi, ta grazia luzeak! Zer erregalo, argi, ta indarrak! Au baño geiago zan Isidro, baña erraz ezta esatea guzia.

10. Ofizio Dibinoetara, ta Jaietako Dotrina, ta Sermoietara, beti joaten zan, da ofizio andia zuen, ta orietan zeruko argi andiak artzen zituen: da Isidoren anima Espiritu Santuaren doaiez ugari bete, ta beti irteten zan. Zeruko doai señalatu oien gañean, Jainkozko Jakintasun paregabea, Mezaren, Eleizako Orazio publikoen, Ledanien, Pater noster, Abe Maria, ta Lege Santuko beste gauzen gañean Isidrok beti izan zuen, ta bere obretan beti ondo erakusi zuen. Jainkoaren gauza guzietarako mirarizko inklinazioa zuen, ta biotzean zeukana aora zetorkion, Ebanjelioak dion beza-

la, Munduko joanetorri, esamesa, ta berriketak utzi, ta Jainkoarekin, edo aren gauzen gañean beti, ta txit, egokiro, ta ederki itz egiten zuen. Ojala, Nekazaria, zuk ori egiten bazendu: mingañezko pekatu gutxiago, zer konfesatu izango zenduke. Isidroren itzak, obrak, konfesio, komunio, Mezak Jauna alabatzeko, edo geide, ta guziaz on egiteko ziran. Ori nola.



ZAZPIGARREN §a. SAN ISIDROREN GUZIAKIKO PIEDADEA

1. Jainkoarekiko Piedadea ikusi degu. Isidro txik kontuan zegoen gure Lege santu guztia bi Mandamentutan sartzen zala: Jainkoa gauza guzieren gañean amatzean, eta argatik bakoitzak bere Geidea (ori da Projimoa) bere burua bezala. Obretan bere biotzeko amorioa beti erakusi zuen, ta Jainkoagatik al zuen on guzia projimoai beti egin zien. Isidro berez txit onzale, ta ongillea zan, eta guztiai ori egiren bizi nai zukean. Piedade, ta karidade onetan obra milagroso txit probetxuzko, ta asko egin zituen, ta ejemplo guziz ederrak eman zituen. Bere Emazte, Nagusi, ta beste lagunakin egin zituen Marabillak, eta obra onak kontatu bear ditugu.

2. Pobretxoai, esan dan bezala, Ama Birjiñaren izenean Senar Emazteak, berak pobreak baziran ere aparteko Elze, edo Lapikoa egin, ta kontu, ta piedade guziaz ematen zien. Orrela Sta. Mariak egun batean etorri ziran pobreaki jaten eman zien. Geroago pobre bat peregrinoaren gisa etorri zan: eta Jesus ona, edo aren Aingerua omen zan, da Isidrori limosna eskatu zion. Onek, eman ziozala Santari esan, da eranzun zion: guztia eman zuela, ta lapikoa utsa geratu zala. Santuak orduan: Andrea arren limosna egiozu. Jainkoak naiko eztu, pobretxo au gugandik goseak joatea. Santa ikustera, ta erakusteko joan, da milagro klaruaz elzea beterik arkitu zuen: eta amore onaz pobreaki ondo eman, da aren ondoren etorri ziran beste askori ere eman zieten.

3. Milagro onetan bezala, bere Semea ito, ta Maria negarrez ikusi zuenean, ta bien orazioak piztu zuenean, ondo ikusten da, zer piedadezko entrañak S. Isidro zituen, eta nolako konfianza bizia Jainkoagan zeukan. Zuk Nekazari prestua, prestuago izateko, emen ikasi bear dezu, pobreaki al dezun on guzia, eta Miserikordiako Etxeari limosnazko milagroak egunoro egiten laguntzea: eta justuen orazioak zenbat balio duen. Zeruko atearen giltza limosna, ta orazioa da. Orrekin idiki, ta S. Isidro ango ondasunen jabe zan, da askori on, edo lirmosna egiteko, andik erakarten zuen. Zuk ere biotz garbi, ta konfianza osoaz orazioa egizu, ta Jainkoari deitu, ta adituko zaitu: zuretzat, eta limosna egiteko ere bear dezuna, emango dizu.

4. Job santuak zion: Amaren sabeletik miserikordia arekin jαιο, ta arekin azi zala, Tobias santuak bere Semeari konseju eman zion: Ene Seme, asko badezu, limosna asko egizu: eta gutxi badezu, orretatik al dezuna emazu. Piedadezko dotrina dibino au Isidroren biotzean zeñ agitz josia zegoen aren betiko obra santuetan ondo ikusten da. Mundu guztia-ri on egiteko, dirudi, Jainkoak onara bialdu zuela: eta mundutik zerura igo ezkeron, aren Piedadezko entrañak badirudi zabalago egin dirala, ta Santuaren Miserikordia limosnetan, ez gutxitu, baizen guztitu dala ezin geiago ala, bere milagro andi askotan ikusi dan bezala. Zuk ere fede bizi, ta konfianza osoarekin Jainko Miserikordiosoaren Birtute seinalatu onetan, S. Isidrori txit gogotik jarrai zaiozu, ta Jaunak zuzaz miserikordia izango du.

5. S. Isidro bere Nagusiari errespeto, ta amorio paregabea zion, ta aren fabore Piedadezko señaile, ta prodijio ederrak egin zituen. Nagusiak bere Emazteagandik Alaba bakar bat, ta txit estimatua, zuen, Maria zeritzana. Oni gaitz andi batek eman zion, da laster il zan. Gurasoak Maria beren jαιο bakarra galdu, ta esan al baño pena tristeagoan arkitzen ziran. Entierorako bear ziran gauzak maneatuak zeuden. Orduan Isidro piadosoa guzieren konsuelorako Jainkoak bialdu zien. Bere Nagusietara joan zan: da oien desditxa, negarrak, eta pena ikusi, ta bera ere txit penatu zan. Nola kariñozko lege guzia zien, bere biotz beraa piadosoa erdiratu zitzaion. Belauniko jarri, ta biotzeko amorio, ta negarrakin Jaunari difuntaren bizia eskatu zion: gero feda andiaz jaiki, ta gorputza zegoen lekura joan zan: da jaikitzea agintzen bazion bezala, ukitu zuen! O eskuaren indar prodijioso! Puntu artan bertan Maria bizirik jaiki zan: eta Gurasoak beste askorekin beren Alabaren Milagro au miresirik ikusi, ta zoraruta bezala lengo penak utsi, ta Jainkoa alabatzen asi ziran.

6. Zer Santuaren opinio, ta reberenzia guzieren biotzetan sortuko zan Alaba gazte ori bizirik altxatu ta ikusi zutenean! Ta zer Madrid guztian orren ota, edo fama banatu zanean! Beste mirari andi bat bere Nagusiaren fabore egin zuen. Au bere aziendak ikustera egun batean joan zan, da Isidro bere bearrean gogotik, eta lazkiro ari zan. Eguraldi leorra, ta beroa zegoen, da Nagusia txit egarritu zan: Isidrori, ur puska bat nai zukeala, esan zion. Santua bere Nagusiaren nekeak lastimatu zuen, da esan zion: Jauna: arako arri altutxo aren aldean ura bada. Bere egarri biziak ara lasterka arin eraman zuen; baña an urik ez. Orduan esan zion: Isidro, emen urik eztago: Nizaz burlatu naizu? Iturria non da? Santuak leku artara joan, Jankoari bere biotza jaso, ta akulluaz arria, Moises Santuaren gisa, jo ta esan zuen: Jainkoak nai zuenean, iturria emen bazan. Esan da egin. Bereala ur ederrezko iturri ugari bat sortuta erten zan, da Nagusiak edan zuen.



7. Milagrozkko S. Isidroren iturri famatu onek gaurdaño dirau, ta Madriden ondoan Santuaren Ermita baten ondoan dago: beñere edo leorterik andienetan ere, aortu ezta, altuan badago ere; ezpada beñ, Moro gaistoak S. Isidroren ur milagrosoa, leorte batean, saltzeari eman ziotenean. Ur onek beti dirau, ta onen milagroak ere bai: txik andiak, eta asko egin ditu: eta gasto askori, sendatzeko, S. Isidroren ura eramaten diote. Akullu prodijiosoa Relikiatzat estimazio andian gordetzen da. Bere piedade au guzienzat ugari ixurteko milagrozkko beste iturri asko Madriden, da alde aietan Santuak orazioa egin, da atera zituen. Bederatzi, edo geiago testigu onak kontatzen dituzte. Gure Kolejio Inperialean dan putzua Santuak milagroaz ateraa da: eta eriak edan, da milagro andiak egin ditu. Karakizko Isidroren urak orobat du.

8. Kofradia Santu betean sartua zan Isidro Kofrade guztiak egun batean barazkaria egin oi zutan. Urteko festa jakin orretan guziak maian jarri ziran: eta nola Isidro Eleizetako bere debozioetan luzaro zegoen, ari bere partea gorde, ta besteak jan zuten. Beranduan Santua Lagunerara etorri, ta ateetan, limosnaren zai zeuden pobre batzuek berekin sartu zituen. Hermanoak esan zioten: alperrik, ez iñor ekarri. Guk jan degu, ta zure partea baizen ezta geratu. Baña Isidrok zeruko pakean esan zien: Ondo da: Jainkoak ematen diguna, ta zuek gorde dezutena, gure artean partituko degu. Serbitzariak Santuari bere partea ekartera joan ziran: da orra non milagroaz geiturik arkitu zan, da eltzea jakiz, ta aragiz betea zegoen: Santuarekin zeuden pobreak ondo jan zuten da gero etorri ziran beste askok ere bai.

ZORTZIGARREN §a. EGAZTI, TA TXINGURRIAKIKO ISIDROREN PIEDADEA

1. Santu onen Piedadezko ontasuna txit zabala, ta txit luzea zan, edo aren biotzean kaburik etzuen: da mirari preziosoak Jainkoak onetan Isidrogatik egin zituen. Aren entrañak alakoak ziran, non da egun batean Semetxoarekin errotara zijoala, elurte andi baten ondoren, uso taldi bat, edo asko arboletan goseak zeudela ikusi zituen. Santua bigundu, ta makurtu zan, ta bere esku, ka oñakin elurra kendu, ta bere zorrotik garia ondo ugari usoai bota zien. An zijoan Nekazari bat aserratu zan, da garia ala galtzen zuelako, Santuari erriarta egin zion. Baña o guzien zeruko Aita maitea! Isidroz obeto ziekien zure barri! Usotaldeak garia garbitu, ta galanki ase ziran: Zorroa bidean arindu, edo gutxitu zan; baña errotan geitu, ta milagroaz osoa zegoen.

2. Kanpoetara garia etzitera zijoanean bidezko pobre askori bere gari puska ematen zien, da kostalak ondo arintzen zituen: txoriai ere kanpoan garia botatzen zien, ta grazia onean esanaz: Ea txoritxoak, zuek ere jan ezazute. Jainkoak eguargi ematean, guzienzat ematen du. Eta bidean ainbeste emanagatik, ereiteko orduan kostalak bereak arkitzen ziran. Onelako milagro andi askorekin Jaunak bere Isidro maitea onratzen zuen. Milagro txikiagoa etzan Santuaren garia ereiteko modu grazioso. Deboziaz beterik, onela ereiten zuen: Jaunaren izenean: Eskua bete; eta bijoa au Jainkoarenzat, Primizia, ta Amarrena, berak eskatzen duen bezala pagatzeko, ta garia lurrera botatzen zuen. Berriz eskua bete, ta zion: au Nagusiarekin gurketzat. Berriz artu, ta esan oi zuen: au txingurrienzat. Onela ereiten ari zan.

3. A nere Nekazari ona! Zer fede, ta debozioa: zer konfianza, ta piedadea zu, zuk ikasi, ta imitatzeke! Ai lastima gogorra! Berdin zuk ere, ark bezala, lana, ta bearra egin bear! Bada, ark bezala egin añ erraz, nai, ta na; ez egin bear dezun ori, ta zeru asko irabaztea obe eztezu? Santuak bezala amarez egizu, ta seguru obeto joango zatzu. Ala Jainkoak ari milagrozkko neurri batean beti bere bearretan eranzuten zion: eta begiz ikusten ziran prodijio askorekin Isidroren Piedadea Jainkoak guziaz arakusten zien. Ara nola. Betiko garia emanaz, Santuaren zorroak bideetan erdi



ustu, ta errotara gutxi eraman oi zuten. Baña Jainkoak betetzen zituen, edo gutxi eotzera bota agatik, zorroa bere iriñ irten oi zan.

4. Emendik, nola errotan Jainkoaren, da Isidroren arteko berri etziekiten, eta gari urritik iriñ ugaria gañez egiteraño, Isidrori ikusten zioten, ostu zuela, uste zuten; eta bere arpegian eman zioten: ea nola ori izango zan; da besteen kostaletatik ostutzen zuela. Santuak testimonio ori pazienza, ta umildade guziak aditu esan zien: Ni ez naiz lapurra, ta agrabiorik iñori egiten dakidana; baña alere ori uste badezute, egia zuen begiaz ikusteko, ori zute iriñ au, ta nik ekarri nuen adinbat gari niri indazute. Ala egin zan; baña bigarren aldian gari gutxi ori eotzera bota, ta zorroa txit bete arteraño iriña eman zuen. Guziak arriturik Marabilla au ikusi zuten. Beste onelako milagro andi ta klaroak Isidroren piedadeak egin zituen. Barauek esango dira.

5. Beste Nagusi bat Caraquizen artu zuen, da onekin Iban de Vargasekin bezalako prodijio eder asko ikusi ziran. Beñ bere larrañean zeukan Isidro gari pilla garbia, eta aparte lastoa. Gari gutxi degu, Isidro, esan zion Nagusiak. Jauna, ez penatu, eranzun zion: Jainkoak geiago ere emango digu. Santua, lasto utsa zegoen lekura joan zan, ta ori aizatu, ta lasto utsetik gari asko atera zuen, eta an zeuden guztiak meretsirik milagro au ikusi zuten. Orañdik ere Santuaren konfianza geiago zan, da Nagusiari esan zion; Orañ, Jauna, lastoan dagoen garia neretzat. Bada Isidro: or ezer geratu ezta; baña alere alerik ezer gelditu bada: guztia zuretzat. Santua orduan Jainkoaren konfianzaz bete, ta lastoa berriro aizatu, ta len baño ale edo gari geiago atera zuen. O zer marabilla ederrak oiek! Santuak milagrozko gari guzia artu, ta pobreaki limosna txit ugari, Jaunaren izenean eman zien.

6. Tordelagunan beste batekin Milagro au gertatu zan; Gari denboran Jabea larrañera joan, da nai zukean adiña kosetxa, ikusi etzuen. Eta nola Isidro bere lur puska batean gari txit asko artu ta zeukan, gogoak eman zion; pilla batetik bestera garia bota ote zuen, da esan zion: lur puska onetan zuk añ gutxi ereñ, da nola izan diteke orrenbeste gari zuk ateratzea? Santuak arpegi alegere batekin eranzun zion: Jauna bere ondasunak errepertitzen dakiena Jainkoa da, ta berak dakien, da nai duen moduan ematen ditu. Alere duda orretatik ondo irteteko, orra zure pilla, ta orra nere; ar itzatzu zuretzat. Niri, nere lasto utsarekin kontentu geratuko naiz. Ori egin, da Isidro Jaunari bere biotza Konfianza guziaz jaso, ta sardetxea artu, ta lastoa aizatu zuen galanki, ta gari len baño askoz geiagobreenzat izan zuen.

7. Beste batean, Iban bere Nagusi ona kanpoak ikustera joan zan; ta orra non zaldia ill zizaion. Zer igarotzen zizaion, S. Isidrori esan zion. Onek, Nagusiari zion lege, ta amorioaz batean, ara joan, da zaldia illik ikusi zuen: eta zaplada bat ematen ziola: ea Jainkoaren izenean, jaiki adi, esan zion: ta puntu artan zaldia oso, ta bizi jaiki zan. Santua bera bidez zijoan batean bere astotxoa loturik utzi, ta Madalenako Eleizan sartu zan: orazioan arrobaturik an zegoela, orra non mutil batzuek otsez asi ziran: Aita Isidro, Aita Isidro: laster egizu: zure astoa otso batek puskatzen, ta jaten du. Santuak esan zien: ene semetxoak, zoazte pakean, Jainkoak nai duena egin bedi: ta sosegu andian orazioan gelditu zan. Ango debozioa egin, da irten, da marabilla andi bat ikusi zuen: bere astotxoa bizirik Jaunak gorde, ta otsoa aren oñetan illik arkitu zuen. Eta orra nere Nekazari ona, Santuaren fede, piedade, ta marabillazko konfianzaz betea! O zeñ gutxi lurreko gauzak eta zenbat geiago zerukoak estimatzen Santu prodijoso onek zuri, ta guztiai erakutsi zien!



BEDERATZIGARREN 8a. TENTAZIO, TA TRABAJUETAKO S. ISIDROREN PAZIENZA

1. Zeruan bezala, lurreean Jaunaren borondatea beti egitean gure ditxa, ta zorian guztia dago. Au Maisu dibinoak bere aoz, Oraziorik nagusiaren, edo Pater nosterrean erakatsi zigun. Egin bedi zure borondatea; nola zeruan ala lurreean. O esaten deguna, beti egiten bagendu! Guk ori beti egiteko, berak beste lezio dibinoa eman zigun zionean: Nerea izan nai duenak, bere burua, edo borondatea uka beza: bere gurutzeta artu, ta egunoro eraman beza, ta Niri jarrai begiz. Zeruko dotrinarik guzienat bearrera au da, eta au gordetzeak anima Santidaderik altuenera seguru darama. Oneran S. Isidro beti ari zan: onetan ordu, ta puntuoro bere lan, edo ejerzizio guztia zuen: egunoro ta beti onetan sendoago egin zan. Baziekien, ta ondo barrendik zeruko argian zekuzan, Jainkoaren borondate, edo naia egiteak salbatzen gaituela: eta gure naia egiteak galtzen gaituela.

2. Pribilejio señalatuetatik bat Santurik andienetan au izan da: eta gure Isidroren anima garbian Jaunak bere eskuz josi zuen joia, ta doairik preziosoena, bere borondatearekin Isidroren biotza añ bat egitea izan zan. Miraririk ikusgarriena da, dotrina, ta ejemplo au Isidrogan añ ederki egiña, ta alde guztietatik apañdua ikustea. Atxurlari pobre beti arrastaka, edo lurrarekin burruka zebillen batek nondik, edo nola ikasi, ta jakin zezakean ori guzia ezpada Espiritu Santuaren argi bakar, da altuenetatik. Baña gure Jainkoak Isidro maitea beretzat artu zuen, ta santidade guzian prodijioso egiteko, anima guztirako egokia eman zion, da onen lur onak bezala, frutu eder ugariakin beti eranzun zion. Esan degun fede biziaz Jainkoa ezagutu, ta bere biotzeko humildadean txit beraño jatxi, edo ondatu zan: da Jaunaren borondarearekin bat berea guztian egin, da birtutearen goienera igo zan.

3. Jainkoaren lezio onetan ikasi ezazu, Nekazaria, gauza andiak, eta asko egitean baño, asko ta ondo Jaunagatik sufritzean birtute geiago arkitu oi da: ta Jesus onaren antza geienean onetan oi dago. Jesus umillaren bizitza gure lur gaisto onen arantzen, da beazunen artean arkitu zan. Orregatik ere Jaun onen espiritua, Aita Eternoaren borondatean beti bat, eta firme egon zan: arekiko umildade, ta amorioz; ta gurekiko ontasun, ta piedadez beta. Ala S. Isidro, Jesus Maisu dibinoaren antzera, munduko

aldarte ta gorabera, guzien artean beti umil, manso, ta bere Jainkoarekin bat egin izandu zan. Ejenplo eder asko emateko, Jainkoak santidade orren ispillu bizia bere biziko tratu lurreean paratu zuen Isidro: eta Nagusi, lagun, da adiskide askorekin, Santuak jardun bear zuen; baña orregatik ere Isidro beti bat izan zan: bere biotzeko mansotasun, da umildadean, Jaunaren borondatea beti bat egin zan. Jaunaren konformidade, ta amorioaren señalerik fiñena au da.

4. Munduko nekeak asko ta andiak guri idurituagatik, Jaunaren eskuetik datozenean, gurutze añ pisuak eztira; emen gizonen da andreen artean datozenak, geienean pisuago oi dira. S. Isidro guztietan espiritu igoala erakusi zuen. Marabillazko konformidade onetan Santuak txik meekiro, edo delikadu iruten zuen, ta tranze guztietarako sufrimentua prest zeukan. Aingeruen pakezko bizitza S. Isidro, eta Sta Mariak egiten zuten. Goizoro biak leia santu batean Jainkoa billatzen zuten, eta gero aren izenean etxeari, ta kanpotai txit gogotik begiratzen zioten. Baña deabruak orien zerako biziera ezin ikusi, edo eraman, da bere lagun edo gizon gaisto batzuez baliatu, ta Santuen kontra bere arma jakiñakin tentatzen asi zan.

5. Lenengo: nola S. Isidro txit goiz jaiki, ta Eleizak bisitatzen, da Mezak enzuten luzaro egoten zan, ta bearrera berandu joanagatik, alde aietako gizonak baño bear andiago egiten zuen, eta aiek baño obeto bizi zan; ori ezin ikusiak ta enbidiak erretzen zituen. Ortik bada, satanasek tentatu, ta Nagusiari kontu, ta kejak eman ziozkaten. Jauna esan zioten: bereazienda Isidro gaizki erabilli, ta galtzea nai ezpadu, kontu artu, ta begira biotza. Eleizetan luzaro egon, da berandu bearrera etorten da; eta onelako beste gauzak. Nagusiak oriek aditu, ta txit asko sentitu zuen. Isidro deitu zuen, da keja andi oriek eman ziozkan: ark ala bereazienda fiatu, ta añ gaizki nola eranzuten zion. Jaietan Eleizetan debozioaz egotea ondo zala; baña astegunetan iñoren agrabioan Jainkoak nai etzuela: ori iñorenazienda ostuaz bera ofenditza zala.

6. Orrelako keja samiñak Isidro ixillik ta mirarizko pazienzian enzun; da sosegu, ta suabidade guziaz eranzun zion: Jauna asko penatzen naiz, zu orrela aserratzeko gizon oriek eman dizuten bideaz, ta zureazienda niri emanak kentzeko pausoetan paratu zaituztelako. Jainkoari nai ezta kiola, nik iñori ezer kendu, edo ostuaz, kalte edo agrabiorik egitea; baña are gutxiago zuri, nere errespeto guztizko Jabeari bezala. Badakizu ondo, zer amorio, ta legea zurekiko beti gorde dedan: ala ezertan ere kalterik egin dizudala ikusten badezu, emen nago prest, arrazoi dan bezala, nere irabazitik zuri emateko. Baña onzat arren artu bear dezun, goizetan ni Eleizetara joatea, ta bearrera baño len, guztien Jauna, da Jabea an billatzea.



7. Isidroren egiazko mansotasun umill au ikusi, ta Nagusia sosegatu zan orduan. Alere, zer igarotzen zan obeto jakiteko, bere begiz ikusi nai izan zuen. Berariaz kanpora joan, da zelatan jarri zan, da ikusi zuen, nola Isidro bearrean txit berandu asi zan: ori zegoen lekuronz, zerbait esateko, aurreratu zan: eta orra non Isidroren alde bietatik, idi uztarri bi, baña elurra bezeñ zuri ederrak bearrean galankiro ari ziran. Arriturik gelditu zan: da zeruko milagroren bat zala sinistu zuen; bada Isidrok alako idirik, ta ez orretako kaudalerik etzuela baziendien berak. Marabilla ori obeto ikusteko, lasterka zijean; baña Isidrogana eldu orduko, au bakarrik arkitu zuen: da ere arrituago, Isidrori esan zion, Zurekin bearrean, edo laguntzen ari ziranak, nor, edo zer ziran? Santuak bere betiko grazia onaz eranzun zion: Jauna, gizon lagunik emen egon ezta; ezpada nere Jainkoa, zeñak beti laguntzen didan. Oni biotzetik deitzen diot; eta onen miserikordiak ondo deitzen dionari sekulan faltatzen eztio.

8. Emendik Nagusiak ziertotzat atera zuen, Isidrori laguntzen ark ikusi zituenak, Jainkoak bialtzen ziozkan Aingeru beargilleak zirala, berak Mezak enzuten, ta Eleizetako debozioetan gastatzen zuen denboran, aren leku edo ordean bearra egiteko. Nagusiak konsueloz beterik esan zion: Emendik aurrera, Isidro, ondoen deritzatzun guzia egizu. Ez bildur, iñoren gezurrik sinistuko dedala; eta gizonen, edo deabruen tentazio, ta esanai lekurik emango diedala. Orra nereazienda guztia zure eskuetan, zurea baliz bezala. Ez bildur, sekulan nik botako zaitudala: Onela Isidro bere biziera santu, ta debozioetan aurreratu, ta pake txit ederrean gero bizi izan zan. Onelako Marabilla andi askorekin Jainkoa Isidroren fabore beti biurtu zala gauza jakiña da.

9. Bata ta beste Isidroren billa, arenazienda, edo bearlekura joan oi ziran; baña debozioetako denboran bazan, Isidro ez an, baizik Eleizan arkituko zan. Aingeruak beren kontura artua zeukaten, aren partez bearra, lazkiro, ta nekegabe aire galantean egitea, Ala Iban de Vargasek, eta beste askok ikusi zuten, uztartuak, Isidro gabe, baña Aingeruak ederki gobernatuaz, gora ta bera zuzen ari zirala, ta bear txik luzea egin zutela, eta bitartean gure Isidro S. Andresen bere Parrokian, Aingeruen gisa zeruan, da orazioan, an beti arkitzen zan. O zer mirarizko ejenploa! O zer zeruko bendizio, ta faboreak!

10. Nekazari ona: salbatu, edo santu izan nai badezu, Isidroagan zer ikasi, ta zer imitatu badezu. Begira ondo trabajuetako aren mansotasun umilla, ta eranzuteko suabidadea: begira aren debozioa, ta Aingeruakin zuen tratua. Santua orazioan, da Aingeruak pozik aren orde bearrean. Ai Aita, esango dezu: guk ere gure bear, da nekeetan orrelako langille, edo

lagun batzuek bagindu! Gure aldapetako goraberak, arrastakak, eta izerdiak gutxiago, ta ariñoagoak izango lirake. Aisa diozu ori, baña ez ongi. Bear baliz gure Jainkoak, ezer kostagabe, bere naiarekin, Isidro, ta beste askogan bezala, zuzen ere ori egingo luke. Baña orduan Santua Eleizara bezala, zu tabernara. Ez ori. Santua ez taberna zale, ez bulla zale, ez berriketa, edo joko zale zan. Mezak enzuteko bai goiztar, Ama Birjiña, ta Santuak luzaro billatzeko: eta Aingeruak aren bearra egiten. Aingeruak argatik bezala, zugatik etorriko lirake pozik bearrera, zuk aren gisako obra santuak egiten bazindu. Baña zu tabernetan, berriketa, ta jolas txarretan, edaten, da jokoa, ta askotan gau guzian, Jainkoaren lege guzian kontra egoten zera: gero biaramonean burua pisua, gorputza nagí baldana, ta bearrerako gogorik ez. S. Isidrok ori etzuen. Ari jarrai zaiozu zure Eleizan, etxean, da bearrean, zeruko bendizio, ta Aingeruen faboreak, ark bezala, artu nai badituzu. Bide okerrak ta pauso txarrak utzi: ta zuzen ibilli: goiz etxera, goiz jaiki, ta Jainkoa lenengo, aren gisa billatu.



AMARGARREN Şa. SANTUAREN KONTRAKO DEABRUAREN ALEGIÑAK

1. Aingeruen artean, edo orien gisa S. Isidro, ta Sta Maria bizi ziran; zeruko pakea lurrean zuten: eztabaidarik an etzan, ta are gutxiago aserre, edo erriertatik; ezpada Jainkoaren borondatean biena beti bat. Batak nai zuena, besteak nai zuen. Amorio garbi santuan bizi ziran, ta beti kontenttu beren pobrezan. Baña Jainkoa obeto serbitzeko, ta osoro bakoitzak bere burua emateko, borondate guziak biak, Anai Arrebak bezala, ta aparte bizitzeko konzierto santu bat egin zuten: eta ori kastidaderik garbiena gordetzeko, libreago Jainkoa billatzeko, ta beren orazio, ta debozioko Ejerzizio santuetan errazago jarduteko. Ala boto merito andiko au egin zuten.

2. Sta Mariak Ama Birjiñaren Ermita bat bere kontura artu zuen, da S. Isidro bere lurte, edo aziendakin gelditu zan. Eta onetan, da leia santu batean bakoitzak bere bidetik, eta biak biotz guzitik Jainkoa beti billatzen zuten. Denborada batean onela txit soseguz, ta pake ederrean Isidro aparte egon zan: Baña Satanas bere enbidiak errerik Santuaren kontra jaiki zan, ta aren pakea inkietatzeko bere alegiñaz armatu, ta gerra bizia egin zion. Sta Maria, Jainkoari guzia emanik, Caraquiz-en zeruan bezala, Ama Birjiñaren amorez onen Ermitan txit ondo bizi zan. Senar Emazteak zerura lur garbi ederki apañduaren gisa. Jainkozko frutu ugariak ematen zituzten: eta deabruak, eta ark tentatzen zituenak ori ezin sufritu zuten.

3. Gauzarik santuena askoren maliziak gaitzera erraz ar dezake. Ala Sta Maria askok batetik, eta bestetik Ermitaron ikusi, ta S. Isidrori kontu, ta kejak ematera jendeak joan ziran: aren Emaztea, debozioaren aitzakian, Jaramako artzaiakin, jaiki, ta desonestoro bizi zala: ta ez erri, edo auzoetakoak bakarrik; bai deabrua bera ere, ango gizon baten figura arturik, gezur ori sinisterazotzeko kontatzera etorri zitzaion. S. Isidrok bere Emazte santaren berari obeto ziekienak bezala sinistu etzien; baña Jainkoaren ofensak, ta bere Emazte santaren agrabioa asko txit sentitu zuen. Guzia Jaunari ofrezitu, ta enkomendatu zion, ta infernuko zizaña, ta tentazio orien erremedioa eskatu zion. Jainkoak aditu, ta milagro argi batekin santa onratu, ta bera konsolatu zuen.

4. S. Isidro Ermitaronz joan zan, da Sta Maria ordu artan bere debozioetara zijoan. Ibai andira, zubirik etzan lekuan, allegatu, ta ikusi zuen, nola santa ziñatu, ta mantilla ibaian bota, ta aren gañean, olezko sala batean baliz bezala, igarotzen ikusi zuen. Asko txit santua Milagro onekin konsolatu zan, da Jaunari graziak eman, da santaren opinio, ta estimazio andiangoan geratu zan. Milagro au beste askotan Santuak ikusi oi zuen. Beste beñ Senar Emazteak elkarrekin ibai ori leorrean bezala igarotzen zutela, Ama Birjiña biak agertu, ta berak urtan batere busti gabe bere Ermitaronz eraman zituen. Ibaia igaro, ta belaunikatu, ta biak Ama Birjiñari biotz guzitik graziak eman ziozkaten.

5. Denboraren buruan berriz deabruak auzoko jende itsuak tentatu ta maliziaz bete zituen Santaren kontra, ta Santuari esan zioten, Emazteak fede, edo legerik gordetzen etziola, ta Jaramako Artzaien, da Unaien ondoren inkietatzen zebilla. Jende itsu oiek beste aitzakiarik etzuten, ezpazan Santa bere Ermitara joateko, edo limosna eskatzeko, kanpoan egunoro ikusten zuten; baña ibai andian nola igarotzen zan berak etzekusten. S. Isidrok, Santaren inozentzia garbiaren, da gezurrezko testimonio aien berri ondo ziekien, da alako ofensa itsusiak, esan al baño geiago, sentitzen zituen. Santo Kristo baten aurrean negar andiak egin zituen, ta aren graziak argitu, ta lagundurik, salatzalle izan ziran jende itsuak berekin Caraquizko Santaren lekuronz, bestelarik bezala eraman zituen.

6. Zelatan bezala guziak an zeudela, orra non Sta Maria besteetan bezala, bere Ermitara, ta debozio andian zijoala, ikusi zuten. Ibai andira, zubi, edo barkurik etzan lekura, etorri zan, da guztiak zekustela, Santa ziñatu, ta mantilla urtan bota, ta oliotxarroa, ta argaia Ermitarako eskue-tan zituela, ur gañean bustigabe pasatu zan. Aronz, ta ononz igarotzen, Milagro andi ori guziak ikusi zuten. Arritu, edo miretsirik Jainkoaren prodijio orrekin gelditu ziran: Jainkoa alabatu zuten, da Santaren marabillak kontatu zituzten: S. Isidro txit kontenttu, ta pakean, bere Emazte santari Jainkoak bere obra añ klaro biurtu ziolako. Santa bere zeruko, ta Ama Birjiñaren debozioko pakean txit ederki aurrera bizi izandu zan.



AMAIKAGARREN Şa. S. ISIDROREN AZKENGAITZA, TA ERIOTZA PREZIOSOA

1. Jainkoaren borondateko santidade altuaren neurri osoa Isidrogan bete zan: aren gustoko frutu gozo eskojitua bezala txit eldua zegoen. Lur gaisto onen gañean, arantzen artean bezala, neke ta pena gogorretan bere Jabe dibinoak gorde zuen luzaro: bere eskutik aldatua bezala, Landare, edo gazte zanetik Arbola txit galant, ta bizitzako frutuak eman arteraño azi zan, da txit ugariak eman zituen. Lurrean zerurako jaioa zana bezala, etzegoen ondo: zeruak Santua nai zuen, ta arrazoiak beretzaz eskatzen zuen. Luzaro txit, bear, neke, ta pobrezan beti bizitu zan; baña txit kontentu, zeren Jaunaren borondatea ori zan. Kontentuago askoz ill zan, zeren bere Jabe maiteak ori nai zuen. Zerurako abisoa, edo ill berria, gloriarako deia bezala aditu, ta bere burua Jaunari osoro eman zion.

2. Etorri zan bada denbora, zeñean Juez justuak Isidrori bere umildade, karidade, ta beste birtute señalatuen saria eman nai zion, ta eriotzako gaitzak artu, ta oiera sujeratu zan. Jainkoak deitzen ziola, bereala ezagutu zuen, da zerurako prestatu nai zuen. Nola pobrea jaio, pobrea azi, ta pobrea bizi izan zan, ditxa andia, ta zer egin txikia zeukan bere Testamentua egitean. Mundu falso gezurti orretan bezala Testamentua, ta Eleizakoak egiteko inguraka, ta batera, ta bestera asustatu eztedin, ill bear duela, edo iltzeko peligroa ezagutu eztezan, ta orrelako engaño urik Isidrorekin etzan. Andietxe askotako desditxa da ori: ill bear, ta iltzeko dagoen tristetxe ezagutu ez bear. Lan andiskoa da. Nola izango da? Ori esatera ez Medikuz, ez Konfessore, ez besterik bildurrez atrebitzen ezta. Au lana.

3. O ditxagabeak, gizon, edo andreak sinisten dutenak, eriotzaren peligroa esateak edo abisatzeak, bizia laburtuko diela! Jainkoak nai duen artean, ezin iñor ilko da: eta zu ere ezin ilko zera. Orregatik ere askok naiago du zeru bizia galdu, lurreko eriotzaren izena aditu baño! O bedeika gure baserri, ta Nekazari etxe pobre umillak! Orrelako bildurgabe ta zuten Eleizakoak egiteko esan, da gure jendeak Jainkoaren fabore andi bat bezala, fede ta amore onez, S. Isidroren gisa, zerurako barri on ori artzen dute. Onela Santua beregan, ta arako txit prest zegoen: lurrean gorputza, ta zeruan biotza. Paper gutxi, ta denbora gutxi bere Testamentua egiteko bear zuen. Erraz Jaungoiko egiazko, edo Trinitate Santisimoari bere

Anima betiko eman, da S. Andresen Parrokiari bere gorputza an enterratzeko utzi zion.

4. Testamentuaren Buru, edo asiera au egiñ, ta egiña zegoen guztia. Bere soñeko pobre garbiro estaltzeko diña zekarrena, utzi zuen. Utzi zituen bere atxur, ta bizitzeko premia zituen kanporako erremientak: berak irabazi zuen lur puska bat, eta bere Astotxoa; eta orra guztia. O zeruko Isidro preziatua! O zerurako zeñ ariña zeuden! O Testamentu guziak onen erraz, ta zuzen egiten balira! O ta zenbatek bere eriotzan Isidro Atxurlari pobreaken suerte ditxoso au artu, ta berea pozik arenarekin trukatu lukean! O andien, da aberatsen peligroak! O pobretxoen zorioneko suerte segurua!

5. Au egin, da deboziorik andienarekin prestaturik konfesatu, ta zerurako Bidezkoaren gisa, Biatiko Dibinoa, ta Oleazio santua artu zituen, ta Jaunari Sakramentuen graziak soseguz eman ziozkan. Azkenean Tobias santuaren gisa, Espiritu Santuak argiturik, etxeako deitu, ta esan zien: Ea, Jainkoaren bildurra zuen animetan sartu, ta bera biotz guztitik serbi ezazute, aren Mandamentuak ondo gordeaz, ta aren borondatea gauza guzietan egiñaz. Ni banoa emendik: Orra, Maria, Joan zure semea: Ama onak bezala, begira zaiozu. Orra, Joan, Maria zure Ama seme on batek Ama bezala, onra ezazu. A Dios Maria, nere Lagun maitea. A Dios, Joan nere semetxoa. Zuen al dituzuten obra onakin nere animari lagun zaiozute: eta nik zerutik pagatuko dizutet. Onetan beregan sartu, ta fede, esperanza, ta karidadeko aktu amoroso andiak, eta asko egin zituen, ta bere espiritu umilla Jaunari eman zion.

6. Eriotza Jaunaren begietan añ prezioso au, S. Andres egunean, da Julianok dionez, bederatzi eun, da irurogei ta amairugarren urtean izan zan. Batzuek geroago diote. Dana dala, ziertoa da, Gorputz santua S. Andresko Parrokia, edo Zementerioan enterratu zala. Madridko Eleiza guztien artean au zan S. Isidrok azkenik ikustatzen zuena: emen egunoro bere debozio guziak soseguz egin, da bearrera joan oi zan. Gorputz santua lurpean berrogei urtean egon zan, da ez ondo; bada errekatxo bat aren gañetik igarotzen zan, ta onek lurra erabilli, ta agertzeko zorian zegoen. Baña Kristok bere Ebanjelioan dion bezala: Zuen buruko illetxo bat ere galduko ezta: ala bere Isidro maitearen Gorputzeko partetik txikiena ere galtzen utzi etzuen. Bere poderio guziarekin, nai zuen bezala, onratzeko mirarizko bideetatik, ta Milagro patente askorekin Isidroren santidadea agertu zan.

7. Orretarako Jainkoak zerutik Isidro bialdu zuen, da bere Konpadre lagun bati agertu, ta esan zion: Jainkoak agintzen zuela, S. Andresko



Sazerdote, ta Parrokianoai kontu berak ematea: eta aren Gorputza Zementeriorik Eleizan sartu, ta ondo para zedilla: Eleizaren ondoan gizon ori bizi zan; baña sinistuko etziotelako bildurrez esatera atrebitu etzan: ta orren penan bereala gaxotu zan. Bigarren aldian Santua etorri, ta Andre noble bati zeruko Mandatu ori bera egin zion. Onek bereala kontu eman zien: da nola Madriden S. Isidro fama andia utzi zuen, erraz sinistu zioten. Parrokianoak beren debozioak bildu, ta lurra atxurtuaz, Gorputz santua agertu zan: da emen Milagroa Milagroaren gañean.

8. Berrogei urte lurpean egon bazan ere, Gorputz preziosoa batere usteldu, edo alerik mudatu gabe, guzia osoa, ta garbia zegoen. Aren iljanziak ere txit osorik, ta zeruko usai gozo bizi bat ematen zuen. Gorputz santua ala, ta ainbeste zeruko prodijioakin onraturik ikusi, ta kontentu, ta atsegin milagroso batek guztien biotzak bete zituen: eta are geiago Gorputz santua Eleizara aldatzeko artu zanean, San Andresko kanpana, edo eskillu guziak, iñork ere ukitu gabe, mirarizko alegriaz bete ta bezala, bere nez, jotzen, da errepikatzen asi ziran, ta Santua Eleizan sartu artean orrela aritu ziran. Fede ta deboziorik andienarekin, S. Isidro bere S. Andresen Eleizan, bear zan bezala, ta leku ederrean paratu zuten: eta egun, edo ordu onetatik bereala Gorputz santua, ta aren gauzak, ta aren obiko lurra milagro andi asko egiten asi ziran, da beti egiten ari dira.

AMABIGARREN Şa. ALDAERA, EDO TRASLAZIO ONETAKO BESTE MARABILLAK

1. Gorputz santua Eleizara aldatu zaneke festa, edo funzio debotoan S. Isidroren Traslazioa deitzea diote, ta egun señalatua beti izandu da; Aren mirarizko Santidade anartean ezkutatua, Milagro andi guzien agiria, ta asiera ditxosoa izandu da. Gorputz preziosoa ainbeste urtean egon zan, ez andien obi, edo tunba kostosoan, ezpada edozeñ pobre umill, edo munduko pobreenaren gisa, ta lurpean; baña Jaun poderoso lurreko soberbia beronz ondutzen, ta bere pobre umillak gora jasotzen dakienak, Isidro umilla lurpetik jaso nai izan zuen: eta zeruko Prinzipe andien bien, edo Pedro, ta Pauloren erdian ifiñierazo zuen. Ala Prozesio guziz solemne batean Sazerdoteak eraman, da S. Isidroren Gorputza onra, ta prestorik ederrenean, edo S. Pedro, ta S. Pauloren ondoan paratu zuten.

2. Madrid guztian Santuaren ospe, edo gloria au banatu zan, da zeruak milagrozko kanpaien errepikakin adierazo zien. Iñon ziran elbarritu, mainku, erren, itsu, ta beste eriak, zeruko botikara bezala, San Isidroren obira etorri ziran, ta ango lurra erremedio segurua bezala bakoitzak bere gorputzeko gaitzari eman, da sendaturik alegre, Jainkoa Santuagan alabatzen etxera biurtu ziran. Marabilla oiekien, Santua Eleizan paratu zanean, Errege D. Alonso, ta Toledoko Arzobispoa, gure Santua geiago onratzeko, presente omen zeuden. Santuaren Mezak esaten, da festak celebratzen asi ziran: da txiki ta andiak, Eleizako Buru, edo Prinzipeak, ta gure Erregeak Jainkoa Santuan glorifikatzen zuten; eta S. Isidroren debozio, ta amorioa egunoro geituaz zijoa.

3. O Jainkoaren Jakindezko Bide munduarenzat ezkutatua! O Probi-denziarik dibinoen da miragarrieana! O nere Nekazari ona! Begira ondo lurreko pobre umill bat, Jaunak berak agindurik zeukanez, Erregerik andienen aurrean, onelako gloria, ta onrarik altuenaz bete, ta urrezko koroaz zeñ ederki apañdu zuen. Munduko Agintari andienak pobretxo umillen gisa; oriek, baño pobre ta umillago len zanaren, da orañ oriek baño gloriosoago dan, Isidro Atxurlari preziosoaren aurrean, da oñetan belauniko jarri, ta Bitarteko poderoso au adoratu, ta beren Erreinoen sokorruan, bear dutena, konfianza guziaz eskatzen, ikusten dira.



4. Begira fede biaz: emengo Erregeen egitekoa ezta au. Onelako ditzak ematea: onelako onrak egitea: onelako faborez betetzea, Jaungoiko Errege bakarraren diña da. Lurreko Jaunak, zenbat ere diran orrelakorik ezin egingo dute. Eta zuk, Nekazari ona, orri asko deritzatzu. Eta zeruetako Erregeak lurreko Atxurlari bat, lurrean ere bere onra, ta gloriatzeko koroatzeari? Bada jakizu, ori guztia ezerez, edo gutxi dala, baldin zu zuzen, Isidroren gisa bizi bazera, Jaunaren Majestadeak zuretzat prestatu-rik daukatzen gloriatzeko anditatun, ondasun, da atsegiñen aldean. Isidrori jarrai zaiozu, ta nere kontu, ta seguru, betiko ditzosoa izango zerala. Anima zaite: aren pobreza, ta nekeak laster igaro zitan: zureak ere igaroko dira, ta laster: ta pena laburren ondoren ditzax guztiak arekin izango dituzu.

5. Jainkoaren bildur santua, aren fede, esperanza, ta karidadea zure biotzean ondo, ta betiko josi itzatzu. Nagusiakiko, ta etxean, da auzoan lagunakin prestu, leial, garbi, ta paketsu izan zaite: Isidrok bezala, bakoitzari berea eman, al dezun on guzia besteari egiezu: Ama Birjiñaren, da beste egun andietan zure konfesio, ta Komunioa beñere ez utzi: zeruko botikan dan erremediorik bearren, da seguruena au dezu. Zelo andiko Konfessore bat ar ezazu, eta aren esana, Jainkoarena bezala, borondate onaz beti egizu. Zure ume, ta etxeako konfesatzeraz askotan, zure ejemplo, ta konseju santuakin bial itzatzu. Goiz etxera, ta goiz jaikitza, Jaunaren grazian ondo bizitzeko egin zaite, ta seguru zurea da zerua.

AMAIRUGARREN Şa. SAN ISIDROREN MILAGROAK

1. Oiek kontatzea, esan diteke zeruko izarrak kontatzea dala. Nola zerua izarrez betea, ta apañdua ikusten dan, ala S. Isidroren bizitza Milagroez betea; edo apandua ikusi da: ta ill ezkerok txit prodijiosoa beti izandu da. Aita Papebroquiok beste Autoreakin onetan dakarrena, Jainkoa alabatzeke gauza da. Gorputz santua, esan dan bezala, Eleizan paratu zanetik, Milagro txit andiak, eta asko egiten bereala asi zan, ta beti ari da. Erromako, edo Kanonizaziorako Prozesioetan kontatzen diranak kontu edo kaburik eztute. Lenengoan bakarrik birreun da lau Milagro dira: eta orrela beste Prozesioetan: eta duda gabe esaten diran baño, askoz geiago dira. Orietarik batzuek animen probetxurako nik artu nai ditut.

2. Milagroen lenengo asiera, edo iturria bezala da, Gorputz santua agertu, ta bereala ematen asi zan zeruko likura, edo likore prezioso bat, lurreko balsamo guziak baño suabeago, ta zeruko usai gozoaz, Eleiza guztian banatzen zana: onekin eriak ikutu, ta sendatzen ziran, ta milagroezko osasuna askori eman zien. O Gorputz estimagarri, denbora batean lurrarekin burruka, neke gogor, ta izerdi ugarien azpian ibillia, ta orañ biziaren da osasunaren, emalle prodijiosoa! Zenbat munduko andinai, ta erregalatu-ten gorputzak, Zu ill ezkerok arrak jan dituzte, eta auts, edo lur biurtu, ta aztu dira! Eta bitartean zurea zeruko balsamo prezioso osasuna askori emateko, añ osorik, ta garbirik dago. Eta au da S. Isidroren bigarren Milagro beti dirauena, ta Jaun guziz poderosoak Santua onratzeko egiten dion mirarizko faborea. Zazpieun urte, edo besteak diotenez, zortzieun edo geiago da; ill edo zerura zala Santua, eta onen Gorputza urte ta sekula orietan bizi bezala beti osorik ta garbirik dago. Milagro au mundu guzirik dakus, ta Autore, ta Maisu andiak arriturik, txit agitz, ta arrazoi andiarekin betiko Marabilla andi asko ponderatzen dute.

3. Beste milagroen artean nondik asi, batek eztaki. Betiko mirari jarraitua bezala izan zan, Aingeru santuakin Atxurlari doatsu onek iduki zuen adiskidetasun, da zeruko tratua. Dudarik gabe debozio txit señalatu, ta biotzekoa zeruko Espiritu eder oiekin Isidrok iduki zuen; bada ala bizian, nola eriotza ezkerok Aingeruak ainbeste onratu, ta faborezitu zuten. Santuak Aingeruen gisako anima añ garbia zuen bezala, aiek onen lagun izan nai zuten: bere lan, edo beargai guzietan pozik laguntzen zioten. Aingeruen gisa Isidro orazioan; eta Isidroren gisa Aingeruak bea-



rrean ari oi ziran. Adiskide maite, ta tratu bateko Lagunak ziran, da guzien irabazia Jainkoa guztian beti alabatzea zan. Lurra apañtzen, lur puskak txikitzen, alea prestatzen, da ereiten, Aingeruak Isidrorekin edo Isidro gabe, beti prest ziran: Abustua biltzen, garia jotzen, da aizatzen, Aingeruak an ziran, ta orobat, bear zanean, Santuari pobreaki miserikordia egiteko garia galanki geitutzen zioten.

4. Mirari andiak dira oiek, eta milagrozkoko gauza asko orietan ikusi oi ziran. Zerutarren ditzazko tratu eder onetan zer Aingeruen mandatu, ta konsejuak! Nolako Aingeruen argi, konsuelo, ta erregaloak Atxurlari santua goiz jaiki, ta Eleizarako ematen zituen pausoetan! Onen orazio luze, ta debotoetan Aingeruakin beraren artean, zer igarotzen zan nork jakin! Berak ondoen dakiten moduan, beren Adiskide Isidro laztana Aingeruak guztian ederki gobernatzen zuten: Jainkoak, bere Mandatari oiezaz baliatu ta Isidroren gauzak txit zuzen, onen fabore eragiten zituen: bizi zala, ta ill ezkeroko txit askotan Aingeruak zerutik jaitxi ta lurrean santuaren Gorputza, modu askotan onratu zuten, eta Kanonizazioko Prozesuetan, Aingeruen beste Mirari andiak kontatzen dira.

5. Zeruko Espiritu oiek atsegiñezko leian bezala zebiltzan da Gorputz santu geiago onratzeko, Lanpara, edo argiaren kontua ere berak artu zuten: askotan argigabe zegoela askok ikusi, ta bertan irazakirik ikusten zan. Egun askotan ori, baña Larunbat goizetan ikusi oi zan: ta Ostiral arratsean argia berariatz itzali, ta urrengo goizean Eleizara zijoazanak irazakirik arkitzen zuten. Ama Birjiñari ta Aingeruai Isidrok zien amoriogatik onen Kapillara zeruko Musiko oiek jatxi, ta Zerutarren alabantzak Jainkoari kontatzen ziozkaten: ta onen faborez persona santaren batzuek aditzen zituzten. Onelako Milagro askorekin gure Jainkoak bere Isidro onratu izan zuen.

6. Lurreko Erregerik andienak ere Atxurlari santu au geiago onratzea zeruko Errege bakarrak nai izan zuen: da Eleiza santaren, da España guztia fabore, Milagrorik seinalatuena egiteko S. Isidro baliatu zan. Maomat, Mairu, edo Moroeren soberbiaz arroturikako Erregea Kristauen, edo Kristoren kontra biurtu zan. Errege Don Alonso, S. Fernando, ta S. Luisen Alaba ditzosoa, konfianzaz beterik, beste Errege askorekin peleatzeko prestatu zan. Inozentzio Aita Santuak Jubilio guztizko osoa gerra artara zijoazena gustoz eman zien: berak eta Erromako guztiak ur, ta ogi barautu, ta Penitentiako Prozesio jeneral batean bera oñ utsetan ibilli zan, Jainkari Españaren fabore Bitoria eskatzeko. Moroak lekuri edo prestorik onenak artu, ta prestatu zeuden.

7. Gure Erregeak bere Lagun, da jendeak ondo prestatu, ta Jainkoaren graziaz guziak armatu ziran. Bideak txit gaistoak, ta ango berririk iñork etziekien. Errege onak tranze estu onetan guziaz agindu zien: Ea fede biziaz, ta biotzetik Jainkoari eska diozagun, biderik onena, bere enemigoen kontra erakutsi diezagula. Puntu artan Artzaiaren gisako Nekazari bat an agertu zan, da Erregeri esan zion: Bide oietako berri nik dakit. Niri jarrai, ta jende guzia leku onera nik eramango det. Esan, da egin. Presto guztiz bentajoso (Tolosako Navak, edo kanpo zabalak derizte) ta bear zuten bezalakora eraman zituen. An Moroeren kontra munduko Bitoriarik famosoena Jainkoak eman zien: Eta kanpo artan birreun milla Moro illik gelditu ziran. O Milagro arrigarri, ta zeruko Errege poderosarena! Baña norzaz baliatu zan? Bere S. Isidro Nekazari maite, ta gure Errege ditzosoen Patroi andiaz.

8. Erregeak Jainkoari graziaz eman, ta bidezko Nekazari ongillea, bere saria emateko nai zukean. Baña Isidro gloriosoak ezerean bearrik etzuen: obra on ori egiteko len agertu zan moduan; ori egin da desagertu zan. O Isidro milagrozkoko Jainkoaren Mandatari, ta aren bide erakaslea! Errege Madriden triunfoan sartu, ta S. Isidroren Gorputza adoratzeko, ikusi zuen bezala, esan zuen: Au berau zan. S. Isidro zan bidea guri añ ondo erakutsi, ta zeruko Bitoria milagrosoa eman ziguna. Jainkoari, ta Santuari fabore onegatik graziak eman, da San Isidroren onra, ta glorian Kapilla erreal bat eragin zuen, eta Gorputz santua debozio guziarekin an paratu zan. Arrezkero Errege guztiak benerazio, ta konfianzarik andiena S. Isidro beren Patroi Ongillean beti iduki dute, ta Santua pagatu die.



AMALUGARREN Şa. SAN ISIDROREN KOFRADIA, TA FABORE MILAGROSOAK

1. Atxurlari santuari gure Erregeen Majestadeak egin diozkaten onra señalatuak ikusi, ta Madrid guzia txit asko alegeratu zan. Korteko Jaun andi, ta gizon prestuak aren izenean beren debozio, ta probetxurako Kofradia santu eder bat bereala jaso zuten, da bere amorezko señalear, aren Kapillara joateari, ta Kofradian asentatzeari guztiak eman zioten. Beren ditxa guztirako an izan zan, ta Santuak bere Kofradeai milagro asko egiteko. Pobreakiko limosna, edo miserikordian S. Isidro imitatzeke, onen izenean pobrei jaten, edo egun jakin batean barazkaria, Santuak bezala, Kofradeak ematen asi ziran: eta Santua ere bere Milagroak egiten onetan bertan asi zan.

2. Egun ori etorri, ta amasei pobre deitu, da jaten ondo eman zien. Elzean zerbait geratu zan, da Maiordomoak agindu zuen, beste pobreak deitu, ta Santuaren amorez, zegoena emateko: ala egin zan. Ateetan zeuden beste pobreak deadarrez asi ziran, aiei ere San Isidrokatik zerbait emateko. Maiordomoak ori agindu, ta eltzea utsa zegoela esan zioten. Baña begiz ori erakusteko, lapiko utsa ekartera sukaldera joan, da beterik guzia arkitu zuten. O Jainkoaren amorezko Probidenzia! O Isidroren pobreakiko kontu milagrosoa: Guztiak Jainkoa, ta beren Santua alabatu zuten. Baña milagroak aurrera pasatu ziran. Beste amasei pobre bereala sartu, ta milagrozko janaria artu zuten. Oriek ase ziran; baña berriz elzea aragiz betea arkitu zan: da pobre geiagori eman, da eman zitzaien: eta Milagro Milagroaren ondoren publikatu zan.

3. Julio Pertegal bere emaztearekin ondo bizi zan. Baña luzaro nola umerik etzuten, Jainkoagana biurtu, ta txit gogotik eskatu, ta seme bat eman zien. Zeruko bendizio onekin kontentu guziz andia artu zuten; baña poza laster akabatu zan. Illa bete zueneko aurra gaizkitu, ta sei egunean bularrrik artu gabe erkitu zan: da Aitak besoetan zeukala ill zan. Negarrez gela batean sartu, ta bere S. Isidrori fede osoaz Semearen bizia eskatu zion, da esan: Santu glorioso: Semea bizirik ematen badidazu, bereala zure Kofradian asentatzera joango naiz. Gizon debotoak promes au egin orduko aurra bizirik, ta Amaren bularra gogotik artzen, da sen-

daturik ikusi zan. An zeuden guziak Milagro klaru au ikusi, Isidrogran Jainkoa alabatu, ta publikatu zuten. Aita bere botoa kunplitzera joan zan.

4. Joan Martinez Notario Apostolikoa, Madriden elbarritu, edo perlatiko zegoen: iltzeko etsirik Medikuak utzi zuten. Onen Aita penaz beterik, S. Isidrori zion amorioaz, semeagana joan, da esan zion: S. Isidrori fede guziaz dei zaiozu: aren Kofradian zu asentatzera noa, ta osasuna seguru bereala emango dizu. Lasterka Eleizara joan, da Semea Kofrade egin, da arin etxera biurtu, ta esan zion: Animo, ene Seme: San Isidro bereala sendatuko zaitu, bada aren Kofrade egin zaitut. Aitak esan, da Santuak egin. Semeak bertan osasunaren berri onak bere biotzean artu, ta esan zuen: Nere soñekoak betoz. Santuak sendatu nau; eta aren Gorputz santua ikustera joan bear det. Ala mirarizko osasunarekin Santuari graziak ematera lasterka joan zan: da aren Prozesioetan Milagro andi au juramentuaz berak Kontatu zuen.

5. Onelako mirari, fabore ta prodijioakin S. Isidro bere Kofradia, ta Kofradeen debozioa txit asko aurreratu zuen ta ospe, edo fama andikoa zerutik egin du, ta Santisimoaren, da S. Isidroren Kofradia Madriden batean zebebratzen dira: eta Aita Santuak, eta Obispoak beren Induljenzia, grazia, ta fabore andiakin begiratu, ta lagundu dute. O Nekazari onak! Gure Jainko guztiz ona bere grazian, da biotz onaz serbitzea, zeñ gauza ona ta justua dan! Bada zeruko gloriaz gañera, emen lurtean ere onen gora, ta Errege guztien artean oien Bitarteko, ta Ongille, Atxurlari pobre bat egiten berak daki. Munduko benerazio, ta onra altuenak bera sentitzen dutenai ematen diezte.

6. S. Isidroren Madridko Kofradia onek, Kofradeen debozioak, eta zeruko fabore ta Milagroak nere gogora dakarte, ainbeste Atxurlari Euskaldun gure Menditarte oietan degula, nola San Isidro gloriosoari debozio geiago orañ artean iduki eztioten, da Konfesore Santu guztiz maitagarri oni orien artean nola Kofradiarik fundatu eztioten. Oiarzungo Ibar txit Noble piadosoan S. Isidroren Kofradia Nekazariak dute, ta beren festa egiten diote; baña iñon bestetan eztaikit. Santuaren debozioa Kanpo, ta frutueterako txit bearra, eta Eleizagizonak iduki ta besteai iduki erazo bear lieke.



AMABOSTGARREN **Şa.** S. ISIDROREN GORPUTZA OSORIK JAINKOAK GORDE IZAN DU

1. Jaunaren Ontasun Dibinoak zer amore, ta kariño moduaz bere justuen Animai beti begiraten dien, erraz ikusten da, orien Gorputz askorekin daukan mirarizko kontu, ta Probidenziatik. Au Isidro bere Adiskide maiteagan txit agiria beti izandu da: bada onen Gorputz prezioso beti osorik dago, ta beti garbirik Jaunak gorde nai du. Españako Errege Enrike laugarrena Milagroen famarekin debozio andiz bete, ta Gorputz santua ikustera beñ joan zan, ta ori agirian paratu, ta Jainkoa asko alabatzen zuela, Santua adoratu zuen: eta iltzan ezkeru ainbeste urte igaro, ta añ oso, ta añ garbi ikusi, ta bera, ta Korte guzia Milagro onezaz txit agitz admiratu ziran. S. Isidro kanonizatzeko denboran, Kardenal, ta Obispoen aurrean Gorputz santua ikusteko bere Kajatik osorik, eta txit erraz atera zuten: eta zeruko usai zoragarri bat botatzen duela dago.

2. Erregiña Doña Joanari igaro zitzaion Milagroa izugarria izan zan. Onen animako joia eder ta birtuteen artean bat, S. Isidro gloriolari zion debozioa zan. Onegatik Gorputz santua adoratzera, bere Kapillara joan zan: da gero bere Eleizarako Santuaren Beso bat eskatu zuen: eta nola guzien Ongille, ta Ama añ estimatua zan, Beso santua eman zioten. Baña, o Jainkoaren Probidenzia adoragarria! Erregiñak besoa artu zuen puntu artan, ustegabeko gaitz andi batek bera artu zuen, ta Elizatik ezin irten zan. Familia erreal guztia, ta besteak sustoz arritu ziran. Baña Erregiña piadosak zeruko abisoa laster, ta obeto ezagutu zuen. Gaitz edo akzidentek leku puska bat eman zion, ta biziro esan zuen. Ez, ez: biurtu bekio Santuari bere Besoa. Gorputzari ori paratu, ta Erregiña bertan milagroz sendaturik arkitu zan.

3. Jainkoak bere juizio ezkutatuak onelako Milagro klaroakin agertzen ditu, eta S. Isidroren Relikiak zeñ joia estimagarriak aren begietan diran, ta berak nola onratzen dituen. Erregiña Katolika Doña Isabel gaitz andi batekin, iltzeko zorian zegoen. Baña nola S. Isidroren txit debota zan, biotz guztitik deitu, ta osasuna eskatu zion. Santu amorosoak bereala aditu, ta sendatu zan. Zeruko fabore onekin aren debozioa irazaki zan, da Jainkoari eskerrak emateko, S. Isidroren Kapillara joan zan. Urna, edo Gorputz santuaren Kaja idiki, ta Erregiña piadosak agirian adoratu zuen.

Onen Dama batek debozios, edo bestela, Santuari oñean muñ egitera joan, da Beatz bat ortzakin atera zion, da ondo gordeta zeraman. Erregiña, ta Damak kotxeetan sartu, ta Etixerako abiatu ziran. Baña Dama orren kotxea ez atzera, ta ez aurrera bertan gelditu zan, da alegin guzia kin ere ezin mobitu zan.

4. Erregiña, ta besteak arritu, ta ikaratu ziran: eta zer ote zan, iñork etziekien. Orduan Damak Jainkoaren kastigua Milagro andi onetan ikusi, ta Erregiñari esan zion: Andrea: nerea da kulpa. Beatz au Santuari isillik kendu diot, eta ona non dedan. Erregiñak bere Beatz santuari biurtzea agindu zuen: ori egin, da aren kotxea besteen gisa arin, da ondo ibilli zan. Onelako mirari señalaturik Jainkoak besterekin askotan, edo bere Isidro maitearekin adiña egin duen, seguratzea erraz ezta. Ara beste prodijioa.

5. Joan Diakonoak kontatzen du, Don Pedro Garcia Sazerdote bere ezagunari Milagro bat gertatu zitzaiola, ta berari aditu ziola. Gorputz Santua adoratzan zeudela Don Pedro, ta beste asko, onek illetxo batzuek guraizeakin ebaki, ta bere Eleizan beste Relikiakin debozioaz beneratzeko eraman zituen. Berandu etxera zan, ta jan da bereala illeak Eleizara eramateko, eskuak garbitu, ta maian jarri nai zuen; baña ezin ori, zeren biotzeko miñ, ta gorputz guztiko ikara andi batek eman zion. Santuaren abisoaz, Milagroa ezagutu zuen, ta damu andiarekin Promesa egin zion, Relikia bere Gorputzari bereala eramateko: eta beregan biurtu, ta sosegatu zan. Lasterka, baraurik zegoen bezala, ille santuak artu, joan, da Santuari biurtu ziozkan. Orduan txit sendatu, ta goseak bere urrutiko etxera biurtu, ta gogotik eta galanki jan zuen. Gero kontentuz beterik, ondo kostarikako Milagro andi ori kontatu zuen.



AMASEIGARREN Şa. S. ISIDROREN ONRAGATIK JAINKOA ASKOTAN BIURTU IZAN DA

1. Bere begietako niniari bezala Isidrori Jaunak begiratzen dio, ta onen ofensak txit agitz sentitzen ditu. Au Kristok bere Ebanjelioan dio. Ala Isidro Santuaren illetxo bat aren burutik galtzea nai eztu. Milagro andi askotan ori irakurri dezu. S. Isidro ofenditzea, bere begietako ninian Jainko jotzea da. Au Milagro andi onetan ondo ikusi zan. Errege S. Ferdnandoren Ministro bat Madrida Erregeren egiteko batera etorri zan. Platika santu batean S. Isidroren birtute, ta alabanza andiak aditu zituen, da eraki eriaz arroturik esan zuen: Ez niri orrelakorik esan. Guraso andien seme bat Santu izatea, aditzen det. Baña Atxurlari pobre bat, orren santu izatea, nik sinisten ezte. Onelakoak esan, afaldu, ta oiera joan zan. Desdixaduak gaizki esan bazuen, ondo pagatu zuen, da esana kosta zitzaien.

2. Loak artu bearrean, larri estu batek, biotzeko naigabe, ta gorputz guztiko oñaze biziak artu zuten, ta bertan iltzea etsi zuen. Aren deadar izugarrietara etxeok lasterka joan ziran. Orduko bere kulpaa andia gizonak ezagutu, ta damaturik, Ai, esan zuen! Ai! Jainkoaren, da S. Isidroren kastigua da au, zeren onen kontra añ gaizki itz egin dedan. Nere S. Isidro: nere Santu andia: onelako gaitzik nere bizian ikusi ezte. Goazen guziok bereala: goazen, Santuari barkazioa, ta osasuna eskatzera. Gauerdia zan, da otz ikaragarria; baña etxeok guziak argiak in arin eraman zuten Gorputz santuaren aurrean; negar andiak in jarri zan; da barkazioa eskatu, pakeak egin, da Santuak bertan osoro lengo osasuna biurtu zion. Onek gero esan oi zuen: S. Isidro Atxurlaria Santu andia da: arekin burletan zer ibilli ezta: niri ondo kosta zitzadan.

3. Miguel Perez gizon berez burlagillea, ta gaizki esalea, begietako miñ, edo oñaze portitzakin zegoen. Bere aideak lastimatu, ta esan zioten: S. Isidro milagrosoari biotzetik deitu, ta erredioa eska ziozala. Eriak bur-laz esan zuen: O Isidro Beatoa, atoz nigana! Au esan zueneko dolore añ latz, ta garratzak eman zioten, non uste zuen, begiak oñazez saltatu bear ziotela. Bere animakoak neke gogor orrek argitu ziozkan, da biotzeko damu andiarekin, Santuagana gogotik biurtu zan, bere kulpaa pena justua ezagutu, ta S. Isidroren Kapillara arin joan zan, da barkazioa, ta erre-

medioa eskatu orduko debozioz bete, ta begi argi, ta garbiakin sendaturik etxera biurtu zan. O Santu amoroso!

4. Beste batek, dio Joan Diakonoak, S. Isidroren gloriak, eta milagroak aditu, ta ezer sinistu nai etzuen. Alako batean ausardiaz esan zuen: Isidroren Gorputza surtan bota dezagun, da erretzen ezpada, orduan sinis diteke, Santuak Milagro oriek egiten dituela. Onelako maldadeak Santuaren agrabioan esaten zituen, da orra non Jainkoak perlesia gogor batekin elbarritu, ta erremedio gabe, eriozko borrero orrek bizia kendu zion.

5. Leorte andi batean, Madrid guziz goseak iltzeko zorian zegoen. S. Isidro beren Patroi andiari, Gorputz Santua aterarik, Errogatibak, beste askotan bezala, euria alkanatzeko, asi ziozkatzen. Añ laster euria atera etzuten; da Garfias zeritzan Moro infame batek askoren aurrean esan zuen: Baldin Isidroren Gorputza, agirian dagoen artean, oiei euria ematen badie, ni Kristau egingo naiz: eta kunplitzen ezpadet, zortzi egun baño len eriotza gaistok akaba nazala. S. Isidro bere debotoak aditu zituen, ta zeruak euri ugari bat eman zien. Moroa Santuari egin zion promesa kunplitzera obligatua zegoen; baña nai etzuen. Alakorik ezpaliz bezala zebillen, da zortzigarren eguna zan. Baña epe ori bete baño len, Madridko ibai ondoan zegoela, nork edo nola iñork jakin gabe, gabaz puñaladaz josirik, illa arkitu zan. O Jaunaren juizio, ta kastigu izugarria!

6. Alonso Sanchez gaitz andi batekin Eleizakoak egiñik, iltzeko, edo iltzat Medikuek utzi zuten. Baña S. Isidroren Relikia fede biziaz eman, da adoratu, ta milagroz bertan osasuna, guziak zekustela eman zion. Maria Lopez Alonsoren emazte onak Milagro añ patente ikusi au gizon bati kontatu, ta onek eranzun zion: Andrea: Jainkoak eman dezake osasuna; baña orrelako Milagroak S. Isidro egiten dituela, nik sinisten ezte. Gau artan gizon tristea eriozako tranze estu batean arkitu zan. Berak zion gero: uste zuela, S. Isidro neke mota guziak aren kontra beñoan deskargatu zituela, ta bereala ito bear zuela: Santuaren kontra zeren itz egin zuen, aren kastigua zala ezagutu zuen; da bere estuan esan zion: Nere Atxurlari Santu milagrosoa, barkazioa, barkazioa. Uztazu, ta Meza bi aterako dtzkitzut. Santu amorosoak aditu, ta bereala libratu zuen; da goizean lasterka promesa kunplitzera joan, da konfesatu, ta komulgatu zan, da S. Isidroren txit debotoa gero izandu zan.

7. Isabel Soriano aize gaisto batek eman, da elbarritu zan; da oñaze guziz biziakin. Sosegu gabeko pena onetan zortzi egun pasatu, ta Maria Benita bere Ama, ta S. Isidroren txit debotak esan zion: Santuari biotzetik dei zaiozu, ta seguru adituko zaitu. Ala deitu zioneko Santuak bertan



osoro sendatu zuen. Milagro añ klaro au askok ikusi, ta publikatu zuten. Onetan zeñ garboso S. Isidro ibilli zan, Ama onak alabari esan zion. Baña au, legegabe Amaren, da S. Isidroren kontra biurtu zan: Ama, ez niri ori esan. Jainkoak sendatu nau; ez S. Isidrok. Baña esan bazuen, ondo pagatu zuen.

8. Bereala gaitz andiagoak artu zuen: iru astean elbarritu ta ezin ezer-tako baliatu zala egondu zan. Erremediorik etzuen, da etsirik zegoen. Baña bere kulpa ezagutu zuen, ta orren pena zala, zeren Santuaren Milagroa sinistu etzuen. Bere negar andien artean S. Isidrori barkazioa eskatu zion, ta len baño obeto, bere osasuna: aren Kapillara joateko, ta Meza bi ateratzeko Promesa egin zion. Ark esan, da Santuak egin, guztia bat. Bigarren Milagroarekin bertan osasuna artu zuen. Guziak au ikusi zuten. Isabelak pozaren pozez Santuagatik zer esan, da zer egin etziekien. Amak esaten zion; Kontu, Isabel: Atxurlari Santuarekin burletan ez ibilli. Ez nik, Ama; oi zion, ez geiago, nere Santu milagrosoari alakorik sekulan esan.

9. Madridko Jaun aberats batek bere aziendak ondo erabiltzeko, Morroi, edo Atxurlari fiel bat nai zuen. Kanpotar gazte bat etorri, ta esan zion, bere kontura aren lurak artuko zituela. Nagusiak fianzak eskatu ziozkan. Mutillak esan zion: Jauna, nik eztaukat fiadorerik; baña orra fiadore ona, ta segurua: S. Isidro Atxurlaria Fiadore ematen diot: eta biok egin degun tratu guzia kunplitzen ezpadet, Santuak kastiga nazala. Nagusi onak Santuaren amarez, ta aren izenean morroia artu zuen. Au arlote zegoen, da txit ondo janzi zuen, da aurrera diruak ere eman ziozkan. Mutillak bere burua añ goapo ikusi zuenean, laster iges egin zion: ta emen S. Isidroren grazia oneko Milagro preziosoa.

10. Morroia gabak iges joan zenean, alakorik ustegabe, S. Isidroren Kapillaren ondolik igaro zan. Korrika, ta igeska arin, bere ustez zebillen. Baña, o! Isidroren poderioa, ta katea milagrosoak! Eleizaren jiran gau guztian korrika ibilli zan; da eguna argitu, ta lotua bezala an arkitu zan. Nagusiak Mutillaren berri jakin zuenean, S. Isidrori keja amorosoak, Fiadoreari bezala ematera, Eleizara joan zan, eta orra non Morroia jiraka an topatu zuen. Bazebillen, baña Santuak bere onerako an zeukan loturik. Zeregiñik etzegoen. Nagusiak, eta berak Milagro añ agiri andia ikusi, ta au Santuagana bereala, ta biotzetik biurtu zan: da Jainkoari, ta Nagusiari barkazioa eskatu, ta benetan S. Isidro milagrosoaren izenean, bere bizi guztian Nagusia serbitzeko ofrezitu zan.

AMAZAZPIGARREN Şa. SAN ISIDROREN BESTE FABORE, TA MILAGROAK

1. Egia esatera, nere Irakurlea, Santuaren Prodigio guztiak ezin emen esan ditezke. Ezin kontatu ala, txit asko; ta era askotan dira. Milagro mota guzietan Jainkoak bere, S. Isidro txit glorioso egin izandu du. Gure esar-ran lurretik zerura bere piedadezko entrañak eraman, da an zabaldu, ta guretzat idiki zituen. Lurrean guzientzat Onzale amoroso bazan, zeruan Ongille poderosoago da. Askotan S. Isidro bere deboto, ta besteai eder, da glorioso agertu zaie, ta nai, ta bear zuten osasuna zerutik ekarri die. Beste askori aurrea berak artu, ta beren trabajuetan zer egin bear duten Santuak esan die. Buruko miñ andietatik txit asko, ta beste gaitz gogorretatik are geiago, ta batez ere kalentura luze gaistoetatik libratu izan ditu: eta S. Isidro txit poderoso onetan, da beste prodigioetan beti izan da.

2. Askok begietako oñazez akabatzen, edo itsuturik zeudenak Santuari deitu, ta beste gabe prodigio klaroakin milagro sendatu ditu: begiak argiak batzuei, maiñku askori besoak, erren askori oñak: Elbarri askori indarra, ta osasuna: etsirik edo erioa begietan zeukatenai bizia eman die, ta osoro sendatu izan ditu: ill asko piztu, edo resuzitatu ditu: denbora luzean umerik gabe penaz zeuden ezkonduai zeruko frutu, edo umeen bendizioa Santuak eman die. S. Isidrori otsegin, da deabruak igeska askotan aienatu dira. Satanasen aserreetan gaizki bizi ziran Ezkonduai zeruko pakea Isidro paketsuak ekarri die. Deabruen mendean, pekatuen lazoetan nasturik luzaro zeudenai egiazko penitentsia, konfesio oso bat, eta biziera berri santua pakean egiteko lagundu die Mairuen kateakin, iltzeko sentenziarekin zeudenai, eskua libertadea, ta bizia eman die. Eta itz gutxian orra asko esan, eta onetan onetan Kristau debotoak nolerebait ikusiko du, S. Isidro glorioso zeñ guztizko Milagrosoa, ta alde guzietara zeñ prodigiosoa dan.

3. Gure Española Buru, edo Kortean Erregeetatik bera jende guztiak S. Isidro beren Patroi estimatuagandik artu dituzten fabore milagrosoak kaburik eztute. Madrident Erregeak, eta beste txiki ta andiak beren gaitz, edo peligrøetan Santuagan, nai duten guzia seguru daukate. Leorte andietan euria eskatu, ta Atxurlari Santuak bere kanpoak zerutik ugari irrigabatzen ditu. Gizon gazte zanetik S. Isidrok berezko grazia, eda



berezkiroko ofizioa zuen, iturri zarrak berritzeko, eta iturri berriak agertzeko: putzu leorrak garbitu, ta ederki maneaten zituen; eta urai beti irauteko bide segurua ematen zien. Marabillazko ur gozo garbiak Santuak iturri berrietan atera zituen: eta len da gero, edo beti S. Isidoren faborezko urak Milagro andiak zeruko Botikako edariak izandu dira, ta askoren osasunagatik Jainkoa alabatzeko Bidea.

4. O nere Atxurlari santu paregabea, ta guzien ongillea! O! ta zeñ miragarri, ta gloriosoa, ala zeruan, nola lurreean Jainkoak bere Santuen artean egin zaituen! Gure Errege andi ditzosoen urrezko Koroa ederra, eta oien Korteko Patroi, ta Bitarteko poderosoa, ta Aitarik maiteena zu zera: Atxurlari garbi, ta Nekazari prestu guzien zeruko anparo sagradua zu zera. Oiek beren neke estu, ta gaitzetan esperanza osoaz zugana datoz, ta berak nai dutena zuk egiteko, zugana biurtu bear dute. O zer fedea! O zer legea! O zer biotzeko amorioa oiek, eta guziok Zuri zor dizugun! Bada alako birtuteen ejemploak zure miragarritzko bizitzan, ta arrigarritzko Milagroetan beti erakutsi dituzu! Gure Nekazari on guzien biotzak zuri gogotik jarraitzera, ta beren biziera pobrea zu imitatzera bizi animatzeko, laburtxo badere esan ditugun Marabillak, askodinbat, edo sobra dira.

5. Orañ, nere Santu txitezko Ongille maitetsua! Mesede andi bat, edo andiena, nik ere eskatu bear dizut, eta da, eriotza on bat, edo Jaunaren begietan preziosoa dana neretzat, eta gure, edo zure Nekazari onradu guzienzat. Badakutsu ondo, nere bitarteko poderosoa, or goien, da Jainkoaren ispillu argian, iltzeko zorian banago ere, zure izenean, da zure amorez zer alegiñaz egin ditudan; da nekazari maiteen salbazioa zenbaterañio deseatzen dedan. Orienzat, bada, lau mesede bearrenak, eta nere biotzean beti josirik daudenak eman bear dizkidatzu. Lenengoa da orien pakezko, ta zure antzeko biziera santu bat elkarren artean guziak egitea: era deabru txarrak, Zu, ta zure Esposa Santa bezala, inkietatu nai baditu, zuetara etxeko pakeagatik akudi dezatela, ta txit biotzetik, S. Jose gloriosoari ta zuei bioi, Pater noster, da Abe Maria bat egunoro beti erreza dezatela.

6. Bigarrena: Nekazari guziak zure fabore, ta zure gisa, illean beñ, edo lenago, Jainkoaren, da Ama Birjiñaren egun andietan, konfesatzea, ta itzakin baño, obra, ta ejemploakin are geiago etxekoak eramatea. Dotrina, Sermoi, ta beste Ejerzizio santuetara joatea, eta Eleizan, zuk bezala, zeruko jakinde santua ikastea. Irugarrena: Juramentu, birau, ta gaizki esakak beren ejemplo, ta kontuarekin kentzea, ta etxetik betiko aienatzea: auzoai, ta ñori besteri sekulan gaitzik ez, baizen al dan on guzia Jainkoagatik, egitea: goiz etxera guziak biurtu, ta afaldu baño len, Errosarioa, ta beste

debozioak egitea. Laugarrena: beren denbora datorrenean, Semeai, ta kontuzago alabai beren zuzenbidea ematea, edo era onean oriek ezkontzea. Onetako Nagitasun edo atzerapena Gurasoen, da umeen kondena-zioko peligro andia oi da. Orañ, Guraso diranai nola, ta zer gaztetan nai zuten ezagutzeko argia emaeizu. Zuk zure Esposa maitearen aurrean zure pobrezaren Testamentu garbia egin zenduen bezala; gure Etxajaunak ere, juiziozo personakin gauzak ondo begiratu, ta ikusirik, len baño len denboraz, edo bereala, ta beregan daudela, beren Testamentua egin dezatela: onela libre zure gisa, Jainkoa beti serbitzeko lurreean, ta zurekin batean guziok bera alabatzeko zeruan. Amen.



**SANTA MARIA
SAN ISIDRO ATXURLARIAREN
ESPOSA GLORIOSA,
EDO ONEN BIZITZA,
BERTUTEAK, ETA MILAGROAK**

Gure Jainkoaren Jakinde miragarriak bere Eleiza Santaren edertasunerako, Gizon, da Andreen artean Santuak nai ditu: aberatsen, da pobreen, txiki, ta andi, altu, ta bajuen artean. Aren Poderio, ta Ontasun emalleak kaburik eztu, ta ori era guzietara txit argiro erakusten du. Madridko auzoan, Santa Maria, S. Isidroren Esposa eskojituau au klaro, ta ederki ikusi zan. Jaunaren Sierba maite ta Adiskide doatsu au bere Estadu guzietan guziz miragarria izandu zan. Ezkongai gazte, edo Donzella zala, Birjiña txit garbi eder, da fama andikoa: Ezkondu ta txit onesta, ta fede ona osoro gorde zuena: Matrimonioan bertan, Jainkoa obeto serbitzeko, conseju dibinoaz, bere Senar Santuarekin batean, Anai Arreben, edo Senideen leialtasun, ta kastidade garbi osoa, boto egin, da gorde zuena. Laugarrena: Senarra zerura igo ezkeru, bere Alargunza bakarrean, da pake santuko egin zuen Biziera berrian. Lau Estadu oietan Andre pobre guztien zeruko Ispillu ederra, lurrean gure Santa, ikusiko dezun bezala, izandu zan.

**LENENGO Şa.
SANTA MARIAREN JAIOTZA,
AZIERA, TA GAZTETASUN SANTUA**

1. Jainkoaren conseju ezkutatu da Santu askoren Jaiotza non, da noiz izan zan, ez jakitea. Ala Santa Maria zeruko lore preziosa bezala, Jainkoak munduko Kanpo, edo Eleizara, bere eskutik bialdu zuen. Baña noiz, ta non, da onen Gurasoen berri ziertorik eztakigu, zeren Maria aur preziatuak, ez lurrekoa, baizik zerukoa guztiro izan bear zuen. Santaren Prozesuetan jakiña da, Kristau on, da onraduak, ta zerbait zuten Atxurlari garbiak onen Gurasoak zirala. Ama Birjiñaren debozioz, Maria Bateoan, izena eman zioten, eta graziazko Ponte, edo Iturritik, bere alaba bezala Birjiñen Amak bere kontura betiko artu zuen. Amak Jainkoaren eskutik zerurako señalatua bezala, bere alaba maitea artu, ta txit kontuz, ta amorez bere bularrean aur graziosoa azi zuen.

2. Maria preziosa gorputzean aziaz zijoa gisa, bere Gurasoen, da besteen grazian aurreratzen zan. Txikitxo zonetik, bere Ama onak lenengo orazioak erakatsi ziozkan; eta oriek ikasteko naiera, ta berezko doaia zuen alabak. Arrazoiaren argi, edo usora etorri zanean. Jainkoaren bildur santua bere biotzean sartu zitzaion, eta Eleizako orazioak, ta Kristau onak bear dituen gauzak, eta dotrina kontuz, ta ederki ikasi zituen, Fede santuko Misterioak, eta zeruko bidea obeto ikasteko, bere ejemplo onarekin Amak Alabari Eleizarako bidea erakutsi zion, da berekin eramaten zuen: eta nola añ egokia, ta onerako Jainkoak egiña zan, txit pozik Eleizetara joan oi zan. Lenengo Meza santua debozio guztiaz enzutera; eta gero Dotrina, ta Sermoiatar. Onela Kristau, edo Ama onak beren Alabak azi, ta oitu bear dituzte.

3. Aurtxo inozente Jainkoaren eskojituak Eleizan ikusten, da enzuten zuen guzian, argi egunoro andiakoak bere anima garbian sentitzen zituen: bere postura, modestia, ta inklinazio onak asko laguntzen zioten. Maria añ debozio andian Eleizan ikustea bera, ejemplo txit ederra, ta begiratzen zuten guzien mirarizko konsuelo izan. Santuen zeruko Eskola lurrean da Eleiza: emen Jainkoaren doaiezko argiak, Misterio, Sakramentu, ta Birtute guzien lezioak artu zituen. Lur ondo apañdu baten gisa, nola bere biotza prestatua zeukan, zeruko argi, ta birtuteak leia santuan Maria inozentearen anima ederrean sartzen ziran. Jainkoak gogo txit bero bat eman



zion bera ezagutzeko, ta aren Ontasun, ta benefizioakgatik amatzeko: eta bere Jabe Dibinoa zenbat geiago ezagutzen zuen, anbat geiago billatu, ta amatu nai zuen.

4. Inklinazio santu oiek egunoroko ejerzizio, orazio, ta debozioakin Sta. Mariaren anima garbian Espiritu Dibinoaren argi beroak irazaki zituzten: eta oiek ekarri zioten fede bizi bat, zeñean zimendu seguruan bezala, Santidadearen sustraiak, loreak, eta frutuak gaztetatik sortu, ta añ ederki jaio, ta azi ziran: eman zioten Esperanza firme bat, eta onetan, Ondasun guzietan bezala, bere Jainkoagan erregalitzen zan. A munduko ero baño utsak! Santa Maria Donzella pobre gazteari begira zaiozute, ta galde: ea zer aren Esperanzari faltatu zitzaion? Zuek ez bezala zorionekoa zan. Zuek lurreko gauza miserien artean, edo azpian beti gose, ta egarri, edo zuen biotza beñere kontentu ezta, eta aizatu, ta banidade utsaren ondoren galdua dabil. Gure Santa Jaunaren konfianzan, zeruan bezala, beti kontentu, ta asea, guziz erregalatu bizi zan.

5. Karidade, edo Birtute guztien jainkozko Erregiña, Fede, ta Esperanzaren Koroa, Jainkoaren, da Geide, edo Projimoaren amorio ederra da: eta onetan Santa bere Esposo Dibinoak txit seinalatu egin zuen: aren biotzean Karidade onek zer ofizio, ta zer milagroak egin zituen, kanporonz zerbait, nai, ta nai ez, agertzen zan; baño nola santa añ barrenkoia, ixilla, ta begiratu zan, Jainkoak bai, ta bestek iñork orren berri etziekien. Alere gauza ziertoa da, Jaun amorosoak bere Esposa santa onetan atsegin andia beti artzen zuela, ta bere argi, fabore, ta erregalo Dibinoaz betetzen zuela. Emendik bere toki edo zentrotik bezala, zetozen onen Eleizako egoera luzeak, ango egoteko modestia, ta sosegua, zeruko kontenplazio, ta Jainkoaren perfekzio, ta marabilletan bizi pensatzea, edo arri baten gisa, arrobatu an egotea: emendik Jesus bere Esposo maitearen Pasioko Misterio, edo Pausoetan guztia amorez urtu, ta negarrez desegitea: emendik Ama santisimaren amorio gozoa, ta beste Santuen egiazro debozioa, ta oriek bizi santu batean imitatzeko gogoa.

6. Guzien begieran agiri zanez, Ejerzizio eder orien frutua jendeak bazekusten, bada Donzella gazte santa baten ejenploak berez joiak bezala beti eman zituen. Etxetik Eleizara, ta emendik etxera baño beste biderik Sta. Mariak etziekien. Gurasoetan Jainkoari begirutzen zion etxean, da etxerako gauzetan: oiek beren Alaba txit umilla, txit obediente, ta beti eskupekoa zuten, bere bizian ez begirik jaso, ez itzik atera, Gurasoen aurrean; baizen ondo aditu, ta agintzen ziotena, isillik, ta txit gustoz egin. Aziago edo andia zala, ta amari laguntzeko diña ikusi zanean, etxea gobernatzen ondo ikasi, ta Ama onari beargai guzietan berak aurrea artzen

zion: eta lan oriek Gurasoen gustora aire galantarekin zuzendu; ta Amares gisa Alaba santa josten, ardazkera, edo gozuetan txit gogotik aritzen zan. Bere aide, lagun edo adiskidekin jardun bear zuenean, txit egoki, igotala, grazia onekoa, ta txit gusto emallea zan. Baña bestelako jolas, edo berriketa, joko, ta denbora galtzeko peligroetatik txit iges zebillen. Jaunak bere Esposa maitea bezala, erretiro santuan nai zuen, da bereganonz amorez tiratzen zuen. Guzian zintzoa, begiratu, ta debota Jainkoak bereztat egin zuen.



BIGARREN Şa. SANTA MARIAREN BIGARREN ESTADUA, EDO EZKONTZA EZKEROKO MARABILLAK

1. Gure Santa Donzella gaztea bazan ere, munduko erakeria, ta bani-dadeetatik iges beti, ta urruri ibilli zan: Errelijjioko erretiroan bezala, ez munduak arekin, da ez are munduarekin zer ikusirik etzuten: Jainkoak beretzat txit goiz, ta betiko artu zuen. Birjiña santa onen prenda eskojituak, ta ejerzizio santuen ejenploak guztien begietan, ta aoan zebiltzan, da ikusten zutenen platikak ziran aren marabillak, eta birtuteak kontatzea. Bere denborako gazteen artean Jainkoak txit egoki ederra egin zuela, Autore batek dio: ala Prozesioetan ere aren edertasuna afamatua da. Baña ori azaleko iduri utsa zan: bere modestia birjinalak ori geiago lurean ere jaso, ta apañtzen zuen. Anima santa aren zeruko edertasun ezkutatua nork esan dezake? Nolerebait agertzen zan; baña beti odeien artean bezala. Aingeru eder bat ikustea zan Birjiña miragarria au ikustea.

2. Bere edadearen lorean Jaunaren sierba maite au arkitzen zan: Guraso pobreen umea; baña txit ondo ta garbiro azia. Onen prenda seña-latuak, ta are geiago santidade, ta birtuteak, nola añ jakiñak, eta estimatuak ziran. Andietxeetan ere ezagutzen zuten, da aren zale ziran. Onetan Sta. Mariari zegokion suerte on bat Jainkoak agertu zion: eta Guraso onen alaba bezala, oien borondate, ta gusto osoarekin, Etxe onradu batean serbitzen jarri zan: da bere obligazioai txit ederki eranzun zien: bere kontuko gauzai kobru ondo emateko, ta guziaz gustoa kunplitzeko Jainkoaren grazia partikulara zuen, ta guztia txit ondo zegokion, edo eskuetara, nai bezala, zetorkion.

3. Denbora aietako Autoreak diotenez, S. Isidro Atxurlari gizon gazte famatua zan: beargai guzietarako txit trebea, ta artako jaio bezala, beregañ zebillena. Madridko Jaun aberats batenazienda, edo kanpoak bere kontura artu, ta bearrean bakarrik bizi zan. Jaun au seguru ere Joan de Vargas zan: eta dirudienez, Sta. Maria Jainkoaren Donzella eskojitua onek serbitzen bere etxean zeukan. Isidro, ta Maria nola añ justuak, ta Jainkozko pare, alkarren antzeko kabalak ziran, eta jende guztien artean añ estimatuak, emendik Jaunaren borondateko ordua etorri zanean, bien Ezkontza santurako bidea berez bezala idiki zan. Jainkoak bere santu

maite bien onerako bere eskutik bezala suabidade andiarekin orien gauzak txit ederki zuzendu zituen: eta modu onetan izandu zan guzia.

4. Ala Isidroren Nagusiak, nola alde aietako aren Lagun, da egiazko adiskideak bazekusten ondo, zer neke gogorraren azpian, lagun on baten faltaz Isidro bizi zan. Santuari bezala guztiak ondo begiratzin zioten, da txit asko estimatzen zuten. Urte aietako lanak, eta nekeak igaro zituen; baña ezin ala iraungo zuela zioten. Orrekin Nagusiak batetik, eta adiskideak bestetik ondo artu, ta txit biziro adierazo zioten, estadua artzea konbeni zitzaiola. Santuari txit modu onean baiezkua atera, ta Jainkoaren sierba eskojitu Mariak aren lagun izan bear zuela, kontentu andi batean gelditu ziran.

5. Baña berri on ori Donzella santari eman ziotenean, au bere modestiaz lotsatu, ta arriturik luzaro egon zan. Ezkontza ori zeruko gauza, ta konbenienzia zala ondo zekuzan; baña alere epea zinzoro eskatu zuen. Beñ da berriz bere Guraso, ta Aita espiritualarekin gauza oriek begiratu, ta igaro zituen: ta are geiago ta obeto bere Jainkoarekin, ta onen borondatea ezagutu, ta Isidro santua bere Esposo artzea erabaki zuen. Santu bien Desposorioa, Jainkoaren, da besteen gustora zebratu zan, S. Isidroren Bizitzan esan nuen moduan. Gure Jainkoak bere Eleiza Santan Ezkondu guzien biziera onerako, ispillu eder au ifini nai izan zuen. Ezkon berri santu oien eztaietan, orañoetako zorakeria, ase ta bete, edo ordikeriarik etzan, ta ortik datozen beste libertade desonestorik, musika, kanta, ta danza peligrozkorik ere ez: ta oraño txoralda gaia zaleak bezala, gastu, ta kostu andirik an etzan, zor andiak egin, da nik ondo dakidana, urte askoren buruan, edo sekulan ez pagatzeko. Ezkontza santu onetan mode-razio, ta kristau modestia bestetik ikusi etzan.

6. Sta Maria, ta S. Isidro onela ezkondu, ta Jainkoa serbitzen bata bestearen leian asi ziran; baña zeñ gogotik, ta zer debozio, ta amore santuarekin, esatea erraz ezta. Aingeruen gisa zerurako ezkondu biak lurean bizi ziran. Etziran bi, baizen txit bat. Biotz bat, eta anima bat, Eskritura Sagraduak dion bezala. Zeruko batasun, edo unio santu onetan beren burua, eta etxea zuzentzen, beren ditxazko pobrezan, baña txit garbiro, ta poliki asi ziran. Etxe barrunbeto tresnak Etxandre berriak, ta kanpoko lan, da beargaiak Senarrak, beren kontura artu zituzten. Egunoroko beren orduak partitu, ta era eder, ta armonia santu batean ifiñi zituzten, eta erre-gla oni begiratu, ta beti jarraitu zioten. Ala etxe artan Jainkoak bere bendizio ugaria, ta Aingeruen pakea betiko sartu zuen. Sekulan etzan an aser-rerik, erriertarik: ez eta eztabaidatxo bat ere, oraño ezkontza ditxagabe-ko askotan bezala; eta batez ere plazagizon, jokalaria, edalea senarra, ta



mingañluzea emaztea; eta biak Jainkoaren bildurgabeak, buru gaistoko, ta gaizki sufrituak irteten badira.

7. Santa Mariak, eta S. Isidro egunaren lenengo partea Jainkoari emateko konzierto justu betikoa egin, da osoro gorde zuten. Biak txit goiztarrak ziran: eta beren gorputz nekatuak deskansu puska bat, bear bezala eman, da egunsentian, edo lenago jaiki oi ziran, da txoriakin batean Aingeru gisa, Jauna biotz guztitik alabatzen asitzen ziran. Batetan biak, ta festetan elkarrekin beti, Jainkoa adoratzera Eleizara joaten ziran. Egundandak Konfesio, Komuniorako artuak zituzten: eta graziak ematen luzaro an egon, ta beste Tenplo, ta deboziozko Ermitetan ibilli, edo zeruan bezala guzietan egoten ziran. Gauza ziertoa da, Ama Birjiñaren Santuario famatuak, Almudena, ta Atotxakoa Santu bien egunoroko, luzaro egoteko zerutokiak ziradela. Zer fabore, ta erregaloak! Zer Argi ederraren Ama Santisimaganetik bere adiskide maite, ta anima garbi aiek egunoro artzen, ta beren biotzetan gozatzen zituzten konsuelo, ta atsegiñak! Ontzia nola, ura ala. Nola santuak beren animetan ontzi añ ondo garbituak, ta prestuak zeuden, Ama Semeen Marabillak ala ziraden.

8. Autore grabeak diote. Ejerzizio santu oietan Senar Emazteak beti bat zirala, eta orobat zeruko fabore guzietan ere. Ala itz batean esan dezagun, Jainkoak S. Isidrori egin ziozkan, da esan ditugun fabore ta erregalo guziak, Sta. Mariak orobat artu zituela. Oni Meza santuan, da Eleizetako bere orazio, ta debozioetan, Jesu Kristo Sazerdote Dibinoaren Meza, Aingeruen kanta, ta musikarekin enzutea eman zion: oni Jaunak bere Tenploetan ikusten zituen irreberenzia, eskandalo, ta beste ofensak orobat rebelatu, edo erakutsi ziozkan. Jainkoaren argi oietatik Santak ateratzen zuen frutu señalatua zan, Jaun Dibino Sakramentatuaren fede bizi bat, eta bere biotzeko erreberenziarik al zuen andiena, esperanza firme, ta amorio irazaki bat. Orien ondoren Ama Birjiñaren, da Santuen egiazko debozioa: eta orrekin anima santa au, bere Esposo Dibinoaren amorez lurreko trabajuak ondo eramateko, biotzeko umildade, pazientzia, ta sufrimintuaz armatzen zan, eta karidade, ta pobreakiko miserikordiaz, ta beste birtuteaz apañdu zan.

9. Jainkoak bere Santa au txit ezertakoa egin zuen, da bere S. Isidrorekin egiñik zeukan karidadezko konziertoa, pobreaki beren aparteko Lapiko, edo Elzea egiteko, txit debozioz, ta Jainkoaren pobreenzat bezala, Ama Birjiñaren, da Jesus onaren izenean da onran, Larunbat, edo Zapatuetan garbiro, ta asko guztiarekin egin, da pobreaki ematen zien. Pobreen limosna onetan Milagro asko ta miragarriak ikusi ziran, S. Isidroren Bizitzan kontatu ditudan bezala; baña onek, eta bere emazte san-

tak guztian zuten beren partea. Biak Jaunaren borondatea egitean beti biak ziran; ala orazioan, nola bearrean aren gusto dibinoa, bakoitzak bere bide-tik, baña biak zuzen beti billatzen, da egiten zuten. Sta. Mariak Jesu Kristo bera bezala S. Isidro bere Buru, edo Laguna txit amorez guztian serbitzen zuen. Santua beargille andi ta zintzoa zan, ala bere lurraq maneatzean, nola beste lanetan: esan zan, iturriak, eta putzuak idikitzeo zeruko doai, edo grazia zeukala: eta ur milagrosoakin gaur daneraño fama andia utzi zuen.

10. Lan orietan Sta. Mariak bere orazioakin, ta libre zanean bere eskuakin pozik laguntzen zion. Santuaren alibiorako, berak janaria eramane, da kanpoan biak jaten zuten. Ez neguko otzak, edo izotzak, ez udako bero irazakiak obra on oietan atzeratzen zuten. S. Isidro putzuetan lurra erabiltzean, Santak bere otarra, edo zestoan ori kanporatzen zuen: da onela beste lanetan lagunduaz batak bestearen karga arintzen zuen. O Jaunaren grazia! O Aingeruen atsegin andiko bizimodua! O Nekazarienzat Ezkondu Santu bien zer ispillu eder da ejemplo miragarria! Santa Maria eskojitua zeruko pakean etxean zegoenean, edo kanpoetan zebillenean Jainkoaren begietan, da presenzian zebillen. Baña deabruak bien biziera santa ezin ikusi, ta S. Isidroren kontra, len esan diran infernuko lazoak, ta tentazioak alde askotara asmatu, ta armatu zituen. Orduan esaten ziran gezur, da testimonioetan, Santa beti bere S. Isidrorekin omen zan. O nolako pazientzia umillaz Jainkoari aren onra, egia, ta pakea eskatuko zion! Orazioan bere Jainkoa, ta nai zuen guzia billatzen, da arkitzen zuen, ala etxeko erretiroan, nola bideetan zebiltzanean. Jainkozko kontenplazio txit altuan arroboturik kanpoetan ibilli oi zan. Orazioan S. Isidrori, esan diran Marabilletan beti lagundu zion.

11. Zorioneko Ezkondu santu oiei Semetxo bat Jainkoak eman zien, ta Bateo santuan izena Joan eman bide zioten. Ama Santak zeruko bendiziozko frutua, ta Jaunak arako emana bezala, txit kontuz bere ori azi zuen, da orazioarekin berriro bizi eman zion. Txikia zala, ta alakorik ustegabe putzuan erori, ta ito zan. S. Isidro bere bearretik orduan zetorren, ta Santa Maria ala ta añ triste ikusi, ta arekin batean orazioan jarri zan, Jaunari biak beren semea bizirik eskatzen ziotela: eta Jainkoak bereala aditu, ta seaska bigun batean baleror bezala, goraño urak milagrozi, ta Semea bizirik artu zuten, eta biotz guztitik Jaunari graziak eman ziozkatzen. Seme onen gañean gauza ziertorik, txit gutxi dakigu. Nik arkitu dedana, azkenean esango det.



IRUGARREN Şa. SANTA MARIAREN IRUGARREN ESTADUA: NOLA SENAR EMAZTEAK KASTIDADEA GORDE ZUTEN

1. Mirarizko Santuren batzuen, baña gutxi, edo kontatuen artean ikusi da, Sta Mariak eta S. Isidro Espiritu Santuaren konsejuz gobernatu-rik egin zutena. Luzaro ejemplo eder asko eman zituzten Ezkondu santu biak, ta lagun da ezagun auzo aietakoak arriturik zeuden oien zeruko bizi- modu, ta mirarizko pake santuaz: eta onen gañean bear dana esan degu. Baña orrez gañera, Santu biak Jainkoaren amore, ta santidade guztian gorago igo nai zuten: eta beren Jabe maitea biak, eta bakoitzak obeto, ta libreago serbitzeko, ta aren argi dibinoarekin, Kastidade garbian, Senide, edo Anaia Arrebak baziran bezala, biak garbiro bizitzeko animo, ta kon- sejurik santuena artu zuten. Emazte santak bere Isidrori, Santu andiari bezala guzian begiratzen zion, da Jaunaren borondatea seguru egiteko, aren obediencian beti egon nai zuen. Batak bestea fede, errespeto, ta amore santu garbi batekin estimatzen zuen.

2. Erri, edo Baserri askotan beren bearrean Jainkoak Isidro, ta Maria erabilli zituen, eta beti biak alkarrekin. Jaunaren Probidenziak au nai izan zuen, beren ejemplo ederrak ematen, Milagro andiak egiten, ta auzo aiek guziak santifikatzen zeruko prodijio biren gisa ibilli zitezen. Denbora orietan, da Erri aietan Kofradia santa, ta orietako ejerjizio txit piadoso asko, ta jainkozko Erregla ederrakin berriro jaso, edo fundatu zituzten. Oriek ziran: Egun andietan Kanpotar guziak konfesatzeko, ta komulga- tzeko: guziak batean, edo elkarrekin beren barazkaria jateko: Ama Bir- jiñaren Eleizan deboziozko beren ejerjizioak Kofrade guztiak egin, da ordu jakiñetan egiteko: karidade santu, ta Jaunaren pakean beti bizitzeko, Zeruko Erregla oietatik frutu txit andia ateratzen zan, da Santu biak egu- noro ta amorio andiagoaz irazakirik, espiritu, ta frutu ori geiago aurrera- tzen zuten. Ori guzia obeto seguratzeko an auzoan beren pobrezatik lur puska, edo azienda bat erosi zuten, da ori Santu biak pozik, eta biotz guz- titik, Ama Birjiñaren Eleizari agindu, ta eman zioten.

3. Ejemplo piadoso onekin, da beren obra, ta konseju santuakin beste ango, Atxurlari onradu asko orretara txit animatu ziran: biziera berri

santu bat artzen zuten, limosnak egiten zituzten, da ejerjizioetako asis- tenziak guztien debozioa txit bizi- ro aien biotzetan berotzen zuen. Obra santu oiek jainkozko señaile klaro, ta agirian ikusten ziranak bezala, orañ ere badiraute: Santu oien memoria gozoa, Jainkoa alabatzeko beti bizi da, ta berriro egunoro irazakitzen da. Onela amorezko prenak Ama Birjiña- ri, ta aren Seme maiteari zerura bialdu ezkerro, edozeñek dakus, zer ango saria, Jesus onaren, da bere Amaren begietan da biotzetan Santuak mere- zi, ta arkituko zuten. Orrelako, ta guk esan al baño, beste obra santuago- etan Ezkondu pare miragarri Maria, ta Isidro beren debozio umillean jarduten zuten: eta emendik, edo orduan, Jainkoak, eta bere Amak gor- go, ta berenganago jaso nai izan zituzten.

4. Santu biak Jainkoaren Misterio, ta gauzetan, Jesu Kristoren Pauso Dibino, ta Ama Birjiñarenetan, debozio txit goal, da berdin bat zuten: eta orrekin batean, beren biotz, ta animak amorio santuari alegin guztiaz biak aginduak bezala, arenzat bakarrik bizitzeko, jainkozko sugar argi beroaz irazaki ziraden. Sta Maria maiteak Kastidadea txit garbiro, ta osoro gor- detzeko deseo bizietan aurea artu nai zuen, da Jainkoari biotz guztitik bere argi dibinoa, ta grazia eskatu, ta Konfesoareekin gauzak soseguz irago, ta ondo begiraturik erabaki zan, da Boto santuan firme jarri zan. S. Isidroren animako berri ondo ziekien, ta guziaren kontu oni eman zion, eta bien borondate libre osoarekin beren sakrifizio, ta konsagrazio andi betirokoa Jaunari egin zioten. Denborada batean beren Etxean Senideen gisa, edo lurrean zeruko Aingeruen gisa, biak txit ondo bizitu ziran.

5. Geroenean, nola Emazte santak Ama Birjiña bere Ama maite bakarzar artu, ta serbitu nai zuen, Caraquizen beraren Eleizaren ondoan biak zuten beren Etxetxo bat, eta Isidro bere Esposa maitea ara eraman, ta Ama santisimari betiko emanda utzi zion. Santua bere lanetan jardute- ko Madrida igaro zan. Sta Maria zeruko usotxo inozente baten gisa amo- riozko bere egoak guziz lasai, ta bizi- ro zabaltzen bere bakardade gozo artan asi zan. Debozio andiko Ama txit eder, ta polit bat, bere Seme pre- zioso bendizioa emateko moduan, besoetan duela, Eleiza artan lenago- tik adoratzen zan: ta arrezkerro are geiago, Santaren guztizko debozio paregabeagatik: Emen Ama Semeakin zuen bere gloria bizia: Jesus ede- rrak, eta bere Amak Sta Maria beren maiteari askotan itz egiten zioten. Beñ batak, gero besteak erregalatzen zuren, da zeruko izketa, edo kolo- kio dibinoak zituzten. Bien amorez erre, urtu, ta desegin, da beti zeruan zegoen.

6. Jesus dibinoak, eta bere Ama gozoak bai, ta beste iñork eztaki zeru artan, iruren artean zer igaroko zan Santa onela guziz erregalatu Ama



Semeen amorioz zorotua bezala; bien betiko kontenplazio altuan bizi zan, da beregandik irtendako baten gisa, kanpo, ta bideetan ere arroboturik ango jendeak topatzen zuten. Betiko garbituaz bere biotza txitez garbia, eta al zuen apañduena zeukan. Ama Semeai lore ederrezko, presentekak bere amorioaren señaletan egiten zituzten. Auzo aietan argitako limosna eskatzen zuen; eta Ama Birjiña obeto apañdu, ta ederkiago idukitzeko zer egin etziekien, Santa zeruko glorian onela bizi zan artean, deabruak lurrean gezurrezko bere tranpak, eta sareak ezarri zituen aren kontra. Orretako, Jainkoak lizenzia eman, da auzo aietako gizon gaisto batzuek baliatu zan. Oiek deabruak engañatu, ta S. Isidro Jainkoarekin bere bearran ari zan lekura joan, da Santuaren Bizitzan esan degun bezala, beñ batzuek, gero besteak, aren pakea inkietatzeko, esan zioten, aren Emaztea, fede gabe, ango artzai, ta unaiakin pauso txarretan zebillela.

7. S. Isidrok bere Emazte Santaren berri obeak zituen zerutik, ta baziekien, zeñ santa maitea zan. Besteak berriz Satanasen gezur, ta iduripenakin, zer igarotzen zan etzekusten: orien itsutasuna, ta Jainkoaren ofensa Santuak txit agitz sentitu zuen. Lengo gezurrak aditu, ta orañgoakin are penatuago zegoen: eta bere Nagusiak negarrez topatu zuen. Zer zuen galdetu, ta gizon aien testimonio falsoak kontatu ziozkan. Jainkoagana biurtu, ta biotz guztitik bere argia eskatu zion, da zeruko Milagro klaroakin guziaz egia agertzeko, Nagusia, ta gizon oriek Emazte santa ikustera eraman zituen. Guztiak leku ezkutatu batean zeuden: eta orra non Sta Maria beste aldetik bere orduan ibai aldera zetorren: Zubirik etzan lekura allegatu zan, eta begira zeudenak, ikusi zuten, nola olio ontzia esku batean, ta argia bestean zekarren, da ibai bazterrean bere mantilla urtan bota, ziñatu, ta mantilla gañean, leorrean bezala, batere busti gabe ibaia igaro zuen.

8. Santaren Milagro andi au beren begiz ikusi, ta len añ itsuak zeudenak argitu, ta arriturik gelditu ziran. Gure Jainko poderosoa alabatu, ta Sta Maria inozenteari pakea sekulako eman zioten. Ori guztia lenagotik ziekien S. Isidro umillak: bada beñ batean Maria, ta Isidro an bertan Ama Birjiñak eskutik biak ibaian igaro zituen: eta egunoro, edo beti Santa ala iragotzen zala gauza jakina, ta publikoa egin zan. Esan deguna, ta Autoreak diotena: Marabilla guzietan biak beti bat ziran. Beste batean kanpoan zeudela, zakur batzuek erbitxo bati zerraiozan, da arrapatzeko, edo itozteko zorian zekarten: beren piedadezko entrañakin Santuak lastimatu ziran. Santak orduan: Isidro, esan zion, erbitxo oni ez gaitzik egitea, zakur oriei agin zaiezu. Santuak, tolesgabe Mariak nai zuena, zakurrai agindu zien, da bertan arrituak bezala geratu ziran. Santagana erbia joan zan, eta

palakatu, ta etsaiak joan ziranean, erbi gaxoari Santu biak, ta libertadea pozik eman zioten.

9. Santa Mariaren piedade, ta zeruko inozentzia au miragarria beti izandu zan, eta bere Senar Santuak ala ezagutu, ta aren onrarako, ta guttien fede on da estimaziorako Milagro andiakin orien aurrean agertu erazo zuen. Santa bere kontenplazio, ta Marabillen artean, Jesus ona, ta bere Ama maitea serbitzen pakean luzaro bizitu zan. Denbora orretan S. Isidro Madrident bizi zan; eta batzuek diotenez, larogei ta amar, edo amai-ka urtekoa, ta zerurako ondo eldua. Jainkoaren Bateoko grazia, ta inozentzian zegoen, eta Jaunak bere Adiskide maitea gloriako bere Erreinora eraman nai zuen. Eriotzako gaitzak, ta ondo laburrak eman zion, da Sta Maria zeruko abisoarekin, Caraquitzik Madrida arin joan, da esan al baño errespeto, ta kariño geiagorekin, bear bezala, bere Isidro santu lastanari, Anaiarik onenari bezala guzian lagundu zion. Eleizako Sakramentuak denboraz, ta txit beregan zegoela artu, ta bere pobrezaren testamentua Sta Mariaren aurrean egin, da aren kontura guzia utzirik, esan genduen moduan, Santuen gisa iltzan. Eleiza santaren piedadezko ofizio guztiak Senar Santuari egin, da Santa Ama Birjiñaren bere zeru bakarrera biurtu zan. Biziak iraun zion artean, bere Marabillazko ejerjizio, ta birtute guzien mirarizko ejemploetan denbora guzia igaro zuen.



LAUGARREN 3a. SANTA MARIAREN ALARGUNTZA, ERIoTZA PREZIOSOA, TA MILAGROAK

1. Lurrean zuen konsuelo, ta anparo bakarra, edo Isidro bere guztia Sta Mariari Jainkoak zerura eraman zion: eta beste andreen negar, da zere-
monia geiegiak largarik, Joan bere Semeari, diotenez, guztia, edo Isidrok
agindu zuena bereala eman zion. Lurreko artu emanetik libre, ariñago
Santa zeruronz igo zan. Madriden Santa biak bisitatzen zituzten Eleizak,
ta Ermitak, orduan amaitu bide ziran. Atochako Ama Birjiñaren Santua-
rio jakiña; ta Almudenako, orañ Korteko Eleiza Nagusien, edo prinzipal
dana. Arrezkero Sta Mariak Caraquizen bakarrik bizi zala, alde aietan
ziran Ama Birjiñaren beste Ermita askoren kontua artu zuen, da guztietan
bere limosna, ejemplo, ta prodijioakin, jende guzieren debozioa txit bizi-
tu, ta aurreratu zuen. Orietan berak ama Birjiñaren fabore asko gozatu, ta
orandaño zeruko memoria guzientzat utzi zuen.

2. Ejerzizio santu, ta miragarri oiean Jainkoaren usatortola baten
gisa, zorioneko bere erretiro, edo soledadean, Maria lurrean, zeruan baze-
goen bezala, denborada batean bizi izan zan. Baña Aingeruak, eta Zeru-
tarrak, ta are geiago Jesus bere Esposoak, ta onen Ama maiteak beren
glorian ikusteko aren zaletu ziran: eta anima santa onek, lagun ditxoso
aien, da Jesus, ta bere Amaren erregalozko mandatuakin suak, eta garrak
irazaki, ta biotzetik amore guziaren atzeneko bonbonadak ematen asi zan.
Suspirio bakoitzean aren espirituak egaka bolatu nai zuen: eta amoriozko
miñ, edo gaitz gozoak artu zuen. Onek estutu, ta bere biotz guztitik, bere
guztiari, edo Ama Birjiñari otsegin zion, ta bere anima santarekin batean,
bere Testamentuan Etxetxo, ta lur puska bat (ori zan Sta Mariak zuen
guztia) utzi ziozkan. Eleizakoak iñoiz ere baño debozio, argi, ta amore
geiagorekin egin, ta bere Ama santisimaren Eleizan enterratzea agindu
zuen. Zeruetako Erregiña Aingeruakin presente zeukala, ta aren gloria
zekuzela, uso zuri eder baten gisa, bere espiritua aren eskuetan, ta Jesusen
Biotzean eman zuen. Gorputz santuaren Relikarioa Ama Birjiñarenzat
betiko geratu zan, da an zeruko fabore señalatu asko, ta Milagro andiak
bere debotoai egiten diezte.

3. Aita Daniel Papebroquiok segurutzen du, Sta Mariaren Milagroak
txit asko dirala: eta ori bera Santaren Prozesotan kontaktzen da. Benedik-

to Aita Santuak bere obretan, prodijio oien gañean alabanza txit andiak
dakartzi: eta gure Aita Serranok Santaren Bizitzan, oriek eta beste Mara-
billa andi asko kontaktzen ditu. Santa Maria txit berezkiro Bitarteko pode-
rosa, ta milagrosa bere debotoen buruko miñ edo trabajuetan izandu da.
Orrez gañera beste gaitz mota, ta eriotzako peligro estuetan ere, txit pro-
betxu andiko Milagro asko egin izandu ditu. Santa preziosa onen Burua
miragarriko benerazioan, Ama Birjiñaren Aldarean, bere Sagrario eder
batean beti egon da: eta Erri aietako jendeak Prozesio debotoetan, San-
tari bear zituzten faboreak eskatzera etorri oi ziran, baita ere aren betiko
Milagroen graziak, edo eskerrak ematera. Oiek ezin kontatu ala ziran, da
Santa Mariaren sepulturako Lur puska bat jendeak eraman, da aien fede
biziak, nai zuten guzia, alkanzatzzen zien.

4. Santa Maria de la Cabeza, edo Burukoa, esan oi da; baño ez San-
tak, ta ez aren Gurasoak, orrelako izengaña izandu zuten, Aita Santuak
berak, ta besteak diotenez: eta Aldare artan zegoen Buru Santuagatik izen
ori jendeen debozioak eman zion. Onen Gorputz, edo Relikia santuak
laureun urte, edo geiagoan, Losa andi batekin estalirik egondu ziran.
Zeruko errebelazio, ta abiso milagrosoak Jainkoak modu askotan ematen
zituen: eta azkenik, Jaunaren fede, ta debozio guziz partikular, ta bero
batek jendeak irazaki, ta mobitu zituen. Relikiak agertzeko prestatu ziran:
Losa jaso, ta Obia idiki zan: Puntu artan zeruko usai bat añ suabe, ta
gozoa Eleiza guzian banatu zan, non da jende an zeudenak, birreun da
geiago ziran, uste zuten, Paradisuan, edo glorian zeudela. Milagro andi
onekin Jaunari graziak ematen, ta deadarrez guziak asi ziran: Orañ bai
Santa Mariaren Relikia gordeak agertzen dirala. Kontu, ta neke andiaz
oiek agertzeko zebiltzan, da Franzisko Bergara Notario Apostoliko bere
debotoari Santa gloriosa agertu zitzaion, da non, da nola zeuden, guztia
oni esan zion, eta ala milagro idoro ziran.

5. Santaren Relikiak txit garbi, zuri ederrak, guztiak an ikusi, ta ado-
ratu zituzten, ta prodijio asko orduan ikusi ziran. Orietatik ezur zuri bat
Relijioso bati eman zioten; baño onek fede gabe esan zuen: Sinisten etzue-
la, ezur ori Santarena zala. Esan ori ondo kosta zitzaion. Gau erdian S. Isi-
dro zerutik etorri, ta reprensio aserre bat eman zion, da esan, Santa
Mariaren Relikia zala ura, ta señaletzat, Santuak zekarren akullu puntaz
bekokian golpe bat eman zion. Sustoz, ta penaz ill bear zuen; baño bere-
gan biurto, ta Santaren faborez obeto arkitu zan. Negarrez, ta deadarrez
fede biziarekin Relikia adoratu zuen, ta Sta Mariari debozio andi bat artu
zion. Beste gizon Staren deboto bat onen festa andi batera lasterrago joa-
teagatik, Sta Maria uraren gañean pasatzen zan lekutik, ur andiakin sartu



zan; baña ibai erdian zaldia ta bera itotzeko zorian urak eraman zituen. Etsi zuen gizonak, eta estu artan Sta. Mariari txit biotzetik deitu zion; eta itsu-itsuan Santak bertan beste aldera milagroaz eraman, ta txit ondo arkitu zan. Festan zeuden guztiak ikusten zutela, jendeai Milagro andi au kon-tatu zien.

6. Nola Santa Maria, ta San Isidro lurreean añ bat, añ Ongilleak, añ paketsuak beti izandu ziran, ala zeruan ere orañ armonia orretan beren debotoenzat biak Ongille bat dira. Madridko Bezino Pedro Mendozak urte biko, ta bere konsueloko alabatxo bat zuen; baña pena txit andia zeukan, zeren kalentura gaisto batek, ta iltzeko bomituakin eman zion, ta Medikuar erremediorik etzuten. Santa Mariaren Prozesotako Fr. Domingo Mendozak onegana, ta S. Isidrogana obeto apelatu zuen. Pedrok, eta Emazteak Senar Emazte Santuai promesa egin zien, iltzea zegoen alaba bizi bazan, biaramonean, S. Isidroren Kapillara, Meza, ta libra kandelarekin eramango zutela. Aur etsi ori Amak fede biziaz besoe-tan artu, ta eraman, Meza enzun, ta bederatzigarren orduan kandela aka-batu, ta bertan gaitzak akabatu ziran. Aurra graziak ematera bezala, berez, ta ariñ Santuaren Aldarera joan zan; eta osasunan ondo geratu zan. An zeuden guziak arriturik Jainkoa Senar Emazte Santuetan alabatu zuten, ta Milagro añ andia publikatu, ta Santu bien txit debotoak gelditu ziran.

7. Katalina Urkizo, Joan de Zarateren Alarguna, bere argaltasunez altu batetik erori, ta golpeak elbarritu, ta itsuturik geratu zan. Ala bearrez erori berriz, ta iltzeko etsirik zegoen. Santa Mariaren Milagroak aditu, ta oni, ta bere Esposo S. Isidrori erremedioa eskatu zien. Txit alibio andia sentitu, ta debozioa ere bizitu zan. Biai berriz biotzetik deitu, ta osasuna, ta gorputzeko libertade osoa artu, ta juramentuaz Milagro au deklaratu zuen: baita bere Alaba Antonia de Zarategan ikusi zan Milagroa ere. Au gorputzeko anditsu gaisto batzuekin peligro andian zegoela, Ama piadosak bezala, bere Alabaren fabore, Sta Maria, ta S. Isidrogana biurtu, ta osasuna eskatu zien. Bestegabe puntu artan Alaba osasuna, ta indar oso-akin arkitu zan: eta Santuen debozioa Milagro oiekin txit geitu, ta aurre-ratu zan.

8. Doña Ana Remesal, Erregeren Ministro baten Emazte, ta Santu bien txit debotak, San Isidroren Kanonizaziorako diru puska bat Madri-den agindu zion, baldin Santuak zeruko fabore, berak txit nai zuen bat egiten bazion. Isidro amoroso Ongilleak, nai baño ere geiago zan mese-dea, bere debotari bereala egin zion, ta kontentu txit andiaz bere Etxean ikusi zuen. Baña munduko gauzen artean zoratu, ta zeruko bendizioaz, ta bere promesaz Doña Ana guztiro aztu zan. Baña Jainkoaren justizia bere

onerako etxean ikusi zuen. Lotan zegoela, Andre grabe moduzko bat bere ondoan ikusi zuen, da bereala gizatar bat leblel izugarri bat berekin zeka-rrela. Andreak esan zuen: S. Isidrori bere promesa pagatu eztiona, au da. Bertan gizonak zakurra bota, ta Doña Anari presa egin zion lazki, ta arrastaka zeraman. Bere estuan tristeza deadarrez asi zan. Nik dirua era-mango det: dirua nik pagatuko det. Orduan Andreak agindu zuen, gizo-na bere zakurrarekin andik zijoala. Onetan Doña Ana, esnatu zan, ta bil-durrak ikara, lasterka jaiki, ta dirua eraman, da pakean, da kito geratu zan. Gero Atotxako Santuarioan, Santa Maria ikusi ta esaten zuen: Niri ager-tu zitzadan Santa au da. Onela bere Isidro Santuaren onra, ta gloriari Santa Mariak zerutik etorri, ta begiratu zion.

9. S. Isidroren Gorputz Santua erakusten zan festa batean, Andre bat Kapilla Errealera txit gogotik, ikustera joan zan; baña orduko jendedi andiak Eleiza bete, ta ezin sartu, ta txit triste etxera zan. An enfadu modu batekin esan zuen: Santuari limosnarik emango eztiot, aren Gorputza ikusi artean. Baña esan orduko, bertan sorturik, eta arriturik, oñak, eskuak, ta burua gogorturik guztia gelditu zan. Medikurik famatuena eka-rrri, ta zer gaitz zan ezagutu etzuen; baña eriak berak bai: Au, zion Andreak, nere kulparen kastigua da, zeren Santuaren kontra itz egin dedan. Damu andiarekin barkazioa eskatu zion, da Santua obeto aplaka-tzeko, Santa Maria bere Esposagatik emendatzeko osasuna eskatu zion, ta limosna bat Santuari bereala bialdu zion. O Santa Mariaren balio prezio-soa! O Bitarteko poderosa, ta Senar Santuaren onragarria! Limosna Elei-zara allegatu baño len, Sta Mariak eriarri osasuna, ta libertade osoa eman zion. An begira zeuden guziak Marabilla onek arritu, ta Milagroa, Mila-groa publikatzen zuten. Ezin kontatu ala dira, Santa Mariak onela beti egin dituen beste prodijioak. Jainkoaren gloria, ta Santaren onrarako esan diranak, asko dira.

Orañ beste berri onak eman bear ditugu.



BOSTGARREN §a. SAN ILLANEN BERRI ONAK

1. Madridko Erri koroatuak, Jainkoaren gloriarako, ta beren Patroi andi S. Isidro, ta Santa Mariaren onrarako, debozio, amorio, ta finezarik señalatuaz azkeneko errestoa egun oietan bota, ta erakutsi nai izan digu: eta gure Aita Serranok dionez, Farsaliako Arzobispo Jaun Don Manuel Quinsano Bonifaz-en autoridadez, alegiñik andienak egin ditu, Aita Santuagana akuditzeko, eta Erromako solemnidade guztiarekin, Kausa berri bat an presentatzeko, edo San Illan glorioso, S. Isidroren, da Santa Mariaren Seme Santutzat deklaratzeko. Gauza ziertoa da, Senar Emazte Santu oiek Seme bakar bat izandu zutela, eta Amak bere ori txit kontuz azi zuela: putzura erori, ta ito, ta Guraso santuen erreguz ur gañean Jainkoak bizirik eman ziela: eta S. Isidro bere Aitaren eriotza preziosoan Seme au presente arkitu zala: Joan zeritzala, edo izen ori zuela esan oi da.

2. Alere ainbeste Autore S. Isidroren deboto andi, ta anziñakoen artean batek ere Seme onen barri segururik, ez len, da ez gero ematen digu. Jaunaren Probidenzia, edo bide ezkutatuak dira. Orregatik ere, gauza agiria, ta jakiña da, Talaberaren ondoan, Cebolla deritzan Erri batean, txit anziñatik, da gogoan eztala, Santu prodijioso bat, S. Illan deritzana, benerazio txit andian, aspaldiko denbora, edo sekuletatik, bere Milagro, ta fabore señalatuakgatik, Aldareetan adoratzen dala. Au da Santu bat, bere asiera, edo prinzipioetan, nondik, edo nola dan, iñork ere seguru eztakiena. Baña señaie guziaz batean, S. Isidro, ta Santa Mariaren Seme, aien ondoren, edo gisa, bere biziera santu, birtute, ta Milagroetan loratu, frutu Santuak eman, da ill zana da.

3. S. Illan, gazte zala, Talabera aldean agertu zan. Zerk eraman zuen, nork, noiz, edo nola, iñondik ere arrastorik ez oi da. Bera txit ona, umilla, ixilla, ta egokia zan, da Atxurlari an serbitzen jarri zan. Norbaitek, diotenez, edo ango jendeak, nongoa zan galdetu, ta eranzuten zuen: Madrid aldekoa zala. Orañ ateratzen dan, edo sinisten, da egiten dan kontua da: Joan gazteak Isidro, ta Maria bere Gurasoak, añ santuak ikusi, ta ondo ezagutu, ta oien bendizioarekin, edo Espiritu Santuaren argi, ta inspirazioak gobernatutik, Madrid aldetik, eta Guraso santuetatik Talabera alde-ronz Jainkoak eraman edo igaro, ta ixil, ta umill an pobrea bezala serbitzen jarri zan.

4. Santua onela ezkutaturik luzaro bizi izan zan, da Erri aietan bere biotzeko Santidade ezkutatu guzia, ejenplo eder, ta Milagro andiakin agertuaz zijoan, Espiritu dibinoak gobernatutik, bera obeto, ta bakarrik serbitzeko, Aita, ta Ama Santuen gisa, lurreko gauzak utzi, ta zerukoetara guztia biurtu zan. Ama Birjiña Antigoako Ermita bat Errian zan, da erretiro santu orren debozio, ta amarez, an Ermitaño sartu, ta S. Antonio Andiarren, orduan oi zan habitua janzi zuen: Illan izena orduan artu zezakean. Ermita onetan munduaren iges, ta bulletatik ezkutaturik bizitza guziz santa bat egin, da zeruko pakean, nola bizi, ala ill zan. An gorde, edo enteratu zuten, ta aren Obi, edo sepulkroa an erakusten da. Erri aietan zier totzat zeukaten, Illan deritzan Erri batean Santua bizitu zala, baña bera angoa etzala: amabi urteko, edo gaztea etorri zala. Bera txit ixilla bazan ere, aditu zutela; nola txikia zala, putzu batean erori, ta ito zan; ta Gurasoen orazioekin Jainkoak bizia biurtu zion. Baña Erri aietan, S. Isidro Semea izan zuenik, iñork ere etzikien.

5. Asabetatik illobetara aditzen zan, ta Erri aietan gauza jakiña zan, S. Illan S. Isidroren denborakoa zala, ta irurogei, ta amar urtekoa ospe, edo fama txit andiarekin ill zala: bere birtute andi, Milagro, ta zeruko faboreakgatik, Aldare bat, Ama Birjiñaren ondoan, sartu, ta eskuietara jaso ziotela. Noiz, ta nola au egin zan, iñork ere eztaki. S. Illan Aldarean paratu zuten, S. Antonioren Habituan, bizar luzearekin Libru bat eskuan, ta eskubare, edo sardetxea beste eskuan daukala. Beren egun artuetan urteoro Erri askotatik, noiztik Jainkoak daki, Prozesio, ta Rogatibak oi zetozen, S. Illan adoratzera: eta orañ ere jenedi andiak etorten dira. Gaur dan egunean Carricachesko Donzellak beren Zirio andia ofrendatzera Santuagana joan oi dira: eta orrelako Zirio asko an ikusten dira.

6. S. Illanek zeruko fabore andiak artu, ta len da gero Milagro asko egin ditu. Baña mirarizko Birjinaren fabore señalatu bat artu, ta beti izandu du. Ama maite onek zerutik eman zion doai guziz partikulara, ta jakiña da, arrabia, edo amorreria sendatzeko grazia. Gaiz gaisto onen kontra Abogadu guziz prodijioso igaroko sekuletan izandu da. Bere debozioetan, da orien abereetan, konturik eztan adiña Milagro ikusi dira. Berak artu zuen zeruko fabore señalatu modu onetan izandu zan.

7. S. Illan bera zegoen beñ batean agiñetako miñez iltzen, edo arrabiatzeko zorian. Txit estu arkitzen zan: da egiazko Osasunaren Ama santisima añ berea zuen, oni biotzetik beti bezala deitu, eta beste askotan egingo zuena, zeruko Erregiña Ama agertu, ta esan zion: Ene seme maitea, zer dezu. Illanek esan zion: Ai, Ama Birjiña nere! Agiñetako oñazea ezin nago: ill bear det. Ama Birjiñ orduan: Ez, zaude, esan, ta bere esku



sagradu gozoarekin matralla ikutu, ta bertan milagrozk miñak betiko utzi zion. Emendik aurrera, amorreriaz dauden guziak zuk sendatzeko eskua, ta doia nik ematen dizut. Ama Birjiñak, guzien onerako, ta S. Illan bere Seme estimatua munduan ere glorioso egiteko eman zion zeruko grazia au, Santuak arrezkero beti izandu du: ala prodijio andi askotan ikusten da: ta amorreriaren erremedio segurua Santu miragarri onen anparoan, da Relikietan arkitzen da.

8. Zakur, edo otso amorratuak ozka egin, da amorratzen diranak, lasterka S. Illanen aurrean Mezak ateratzera dijoaz. Erri aietan au jakia, ta segurua da: eta gaitz ikaragarri orrekin Madridtik, Toledo, Mancha, Andaluzia, ta batez ere Estremaduratik jende asko datoz. Santuaren sepultura-ko lurra batzuek urrutietara daramate, ta beren ganaduak edan bear duten lekuan bota, ta gaitzetik libratzen dira. Besteak S. Illanen Relikia debozioaz urtan sartu, ta ori daramate, ta Milagroak orobat egiten ditu. Beñ batean Zezen brabo bat arrabiak artu, ta Santuaren Eleizan orroaka sartu zan, ta amorreria guziz bizian, baziakien bezala, S. Illanen obira joan, ta ostikoka bere indar guztiaz, ango lurra arrotu, ta atera zuen. Onetan Santuaren Burua ikutu zuen: ta bereala Milagrozk sendatu, ta libre ardi manso baten gisa gelditu zan. Milagro onek Santuaren Burua agertu zuen.

9. S. Illan ala bere biziera santu, ta ejerzioetan, nola bere prodijio, ta Milagroetan S. Isidroren txit anz andikoa izandu zan. Aren Eleizan, da Obiaren ondoko orma edo pareteetan, arri urdin, edo azulejoak daude, ta orietan S. Illanen Milagroak. An ikusten da, nola leku batean ura bear, da nai, ta Santua zegoen: ta zeruko Erregiña agertu, ta Santuak eskuan zeukan akuluaz Ama Birjiñak lurrari kolpe bat eman zion, ta iturri eder bat bereala sortu zan: eta iturri estimatu au Ama Birjiñarena bezala benerrazten da. Ur onetatik guztiak debozioz edaten dute: eta urrutietara eramanda Milagro andi asko egiten ditu. Beste batean S. Illanen Nagusia kanpoak ikustera etorri, ta Zaldia ill zitzaion, da Santuaren orazioak bizia biurtu zion. Onelako beste Milagro asko pintaturik an ikusten dira.

10. Nagusiaren idi batzuek ekartera S. Illan larrera joan zan. Ango unaiai, zeñ ziran galdetu: ta oiek Illani txaskoa ematearren, esan zioten: ara Nagusiaren idiak aiek dira; eta Zezen txit aserre bi ziran. Santua tolesgabe, egia zalako, aietara joan zan: da unaiak bildurtu ziran, Illan milla puska egingo zutela. Baña, O! Illanen prodijiozko santidada! Zezenak idi mansoak balira bezala, ekarri, uztartu, ta bearra lazki biai eragin zien. Onelako Milagroak S. Illanek eguin zituen, da Erri aietan txit fama andia beti izandu zuen. Sinis diteke erraz, zeruko beste fabore, ta erregalo miragarriak, batez ere Ama Birjiñagandik S. Illanek artu zituela, ta aren debo-

zio, ta amorez beterik bizi, ta ill zala. Larogei, ta amar urteko agure bati Kura jakinsu batek galdetu zion: Ea S. Illan, aien Santu milagroso ta añ estimatua nor zan? Eta agureak eranzun zion: Jauna: S. Illan gurea, zeruan dan Santurik andiena da: Santu biren, edo S. Isidro, ta Santa Mariaren Seme bakar eskojitu prodijiozkoa izan zan. Eta oiek dira, nik arkitu ditudan Santu onen Berri onak. Guzia Santuen onrako, ta Jainkoaren Gloria andiagorako izan dedilla. Amen.

FIN.

